

**ARO  
BERRIAREN  
HISTORIA I**

# O.ARO BERRIA ZER DEN. SARRERA

## ZERGATIK DEITZEN ZAIO ARO MODERNOA?

Garai oso indefinitu bat bezala ezagutzen da, alabaina ez da horrela.

- Gaur egun zerbait moderno dela esatean; moderno (gaurkoa, egungoa...)
- Modernitatearen kontzientzia edo garai berri batean bizitzaren kontzientzia Errenazimendu denboran hasten da (XV-XVI). Kultur molde honetan gutxienez eliteen artean garai berri bat bizi izatearen kontzientzia sustatu egiten da eta garai horretako eliteek kontzientzia hori edukita erabakitzen dute beraien garai berri hori historiaren zatiketa hirukoitz batean txertatzea:
  - Antzinatea
  - Garaitu berri duten Erdi Aro (barbaro eta gotikoa)
  - Antzinatearekin bat egiten duen aro berria. Garai moderno, bizitzen zeudena alegia, eta Antzinate klasikoarekin bate egiten zuena, tarte "gotiko" edo "basati" baten ostean
- Garai honetan ematen diren aldaketa sakonen ideia bat edukitzeko egun gertatzen den egoerarekin paralelismo bate egitea interesgarria da. Garai historiko guztietan bezala XVI. mendean aldaketan gertatzen dira.
- Paradigma aldaketa bat ematen da (aldaketa teknologiko bortitz bategatik arduratuta, izateagatik bere buruari galdetzen dio, sistema ekonomiko globala beste horizonte batetara egokitu behar da...) Zailtasuna identifikatzen XVI. mendean edo XXI. mendean gauden jakiten eliteek galdera berdinak plateatu zituztelako.
- Gizakiaren iraganeko esperientzia hartu, transformatu eta ikertu egiten dugu, horrela gure herrikideri eman etorkizuna beste era batera plateatzeko. Hor hasiko da historia horrela erabiltzen XVI. mendean
- Aro Modernoaren definizioa edo moderno hitza gailentzen da XVII. mendearen amaieran.
  - Zaharra edo antzinateren arteko bereizketa bultzada. Indarra hartu (????)
  - Antzinateko literatura edo XVII. mendekoa hobea, kanonen defentsa.
  - 1687an frantziako akademian ematen hasiko moderno eta zaharraren arteko diferentzia.

- Zergatik iritsi mundu osora? Frantziak XVIII. mendean marko kulturala, hegemonia dauka. Gure eliteek hartu zuten kultura frantsesa eta guk bertatik hartu.
  - Moderno hitza auzi horretatik dator.
  - Funtsean, XVI. mendean gizakia arrazoia erabiliz natura eta errealitatea ezagutu domeinatu eta eraldatu ahal dezakeenaren ideiatik dator. Hau da, dogma edo erlijiosoekiko autonomia batetik (ez du esan nahi sinesten ez zutenik, baizik eta jainkoarengatik uste dute jaso dutela arrazoi bat gizakia autonomoa bihurtzen duena). Errenazimenduan jaiotzen da mugimendu bat arrazionalista eta uste duena eraldatu ahal duena natura.
  - Errenazimenduean eta XVI. mendean ematen da historiaren beste kontzeptu bat edo kontzepzio bat: historia aurrerapauso etengabe eta aurrerakoa denaren idea gailenduko da.
  - Aro Modernoa edo Aro Berriarekin batera badago garai hau deitzeko beste modu bat. ERREGIMEN ZAHARRA: mespretxu bezala erabili da, Frantses iraultzako eliteek ematen diote izen hau.
- Iraultza Frantsesa eta gero sortuko dena. Elite intelektualek jarriko dute aurretik zegoen guztia adierazteko.
  - Kontzeptu eurozentrikoa da. Mendebaldeko jendeak erabiltzen duen kontzeptua. Ez du beste kultura edo zibilizazioekiko mespretxurik. Historiaren zatike hirukoitza beste kulturek ez dute ezagutzen.

Badaude elementu batzuk argi bereizten dutenak, Aro Berria, Erdi Aroaren aurrekarietatik.

## EZAUGARRIAK:

1. EKONOMIA: Egitura feudalen bizirautea → **tardofeudalismoa**
  - XVI-XVII. mendean feudalismoaren ezaugarri batzuk bizirauten dute, zeinak garapena oztopatzen duen
    - Errendimendu baxuko nekazaritza, autosubsistentziara zuzendutakoa
    - Bizirauteko beste ekoizten zuten familiek
    - Basogintza (egurra eta ikatza lortzeko), ehungintza...

- Abeltzaintza (artilearentzako, okela, esnea eta larrua lortzeko)
- Gainera ekonomia hau ematen da bere garapena ostopatzen duen marko juridiko batean, non, nekazariak ez diren libre euren ekoizpenak merkatuan plazartzeko edo nahi dutena egiteko.

## 2. INDUSTRIA

Artisautzara mugatua korporatiboa (ekoizle bakoitzak ezin du produktua nahi duen prezioan jarri, gremioen menpe daude) ondorioz ekoizteko ahalmen gutxi, eskasa. Produktua ekoizteko mugatua.

## 3. MERKATARITZA

Eremu mugatu batean emango da. Gainera, materialen baldintzapen txarrek eragotzi egingo dute (garraio txarrak, garraio mugak, aduanak, estankoa, monopolioak).

Aurretik eredu egiten diren egitura ekonomiko hauek, hazkunde etengabea oztopatu egingo dute eta honen ondorioa da arazoak daudenean izurriteak uzta txarra... krisi itzelak sortzen direla baliabideak ia ia desagertu egiten direlako, krisi sozial handiak, baita demografikoak ere.

- Azpiegiturek hazkundera oztopatzen dute → krisia → izurriteak, uzta txarrak, baliabideen desagertzea, hots, krisi sozial demografiko itzelak (Izurrite beltzak 24 milioi - 50 milio hildako inguru utziko ditu).

**Merkatal kapitalismoaren garapena eta sendotze prozesua → kontraste garaia**

Aro Berriaren lehenengo zatia da ez bakarrik aldaketen garai bat edo biziraupenen garai bat. Kontraste garaia bat da.

- Hirietako jardueren dinamismoa, batez ere Italian dinamismo handiagoa
- Industria berrietara inbertitzeko kapitalak
- Elkartrukatzeko sistema global baten jaiotza, aurkikuntza geografiko horiek eurapako merkatal sareen zabalkuntzak historiaren truke sare handi batera eramaten du.

Laburbilduz, oreka ezegonkor batean gaude: alde batetik, nekazal eremu zabal bat, non, egitura feudalak bizirautean duten eta beste aldetik kontrastea egiten geroz eta dinamikoak den hiri eremu bat batez ere kostaldean.

#### 4. GIZARTEAREN ANTOLAKUNTZA

##### **Erdi Aroko klasifikazio estamentalaren herentzia**

- Noblezia (bellatores), kleroa (oratores otoitz), herri xumea (laboratores langileak): klasifikazio esatamental hau gorde egiten da juridikoki. Klase bakoitzak funtzio bat du gizartean. Jurdikoki mantendu egiten da, klasifikazio funtzionala da baina denboran bere zentzua galduko du batez ere nobleziaren kasuan (erregearen garrantziagatik).
- Nobleziak Erdi Aroko funtzioa galtzen du (erregeak kontrola handitu, armada erregearen eskuetan...).
- Erregimen zaharraren amaierararte bizirauten du eta pribilegioak izango dira.
- PRIBILEGIOA: *privata lex*. zerga-salbuspenean, karguen monopolioan eta jabegoan lotzean datza.

##### **Talde berrien jaiotza eta finkatzea:**

- Balore desberdinez hornitutako sektoreak (aberastasuna, meritoa...)
- Egitura estamentalak beste batekin elkarbizi da, giza-taldeak baliabideen arabera klasifikatzen dituenak
- Klase-talka edo eliteen arteko sinbiosia? Edozein kasutan, barne-deserdintasun prozesuak gora. Merkatariek asko noblezia sartu nahi zuten eta nobleziek merkatarien dirua nahi zuten. Paktu honek gizareari estabilitate abarmena ematen dio Erdi Arokoko gatazka bortitzen ostean.

#### 5. ANTOLAKETA POLITIKOA

##### **Subiranotasunaren edo boterearen kontzentrazio prozesua**

- Monarkia absolutuek, lehenengo monarkek monopolizatzen dute lehenago best talde batzuen esku zegoen boterea. ]
- Beste paktu politiko bat: nobleziak egiten duena da bere barnetik irten den talde bati edo familia bati boterea eman.
- Joera zentralizazioarantz dago eta koroaren autonomia handiago baterantz, beste botere batzuk protagonismoa galtzen duten bitartean (erreinuetako asanbleak, batzarrak, eliza, jaurerriak...). Hots, Erdi Aroko boterearen zatiketarik, boterearen zentralizazio baterantz goaz, botere monarkikoaren intentsifikazio prozesua ematen da

- Erdi Aroan existitzen zen fragmentazio edo zatiketarik boterearen kontzentrazio geroz eta handiago batetik, geroz eta esku gutxiagotan gertatzen da boterea. Botere monarkikoaren intentsifikazio bat ematen da.
- Askotan, uste dugu botere berri honi estatua deitzen zaiola edo hau dela gure estatuaren jatorria baina egun kolokan jartze da kontzeptu honen erabilera. Dnebor horretan ezin dugulako estatuaren inguruan hitz egin!, botere ezberdinak daudelako. Erregimen zaharrena eta Aro Berriaren lehen faseetan erregea ere erreinuaren azpitik dago. Gorputz ezberdinen bilgune bat da, ez estatu bat.
- Monarkia edo koroa beste botere horiekiko gailentzeko, edo printzipearen boterea gailentzeko baliabide berri batzuk ebahr dira, egun guztiz ezagunak zaizkigunak baina XVI. mendean iraultzaileak zirenak : Burukrazia administratiboa (printzipea eta bere herriak komunikazio bat edukitzeko eta printzipeak ematen dituen legeak betearazteko, aurretik ez da existituko eta finaktu XVIII. mendean), indar militarren monopolia (printzipearen xede espansionista eta erreinuaren defentsa bermatzeko), diplomazioaren garapena (gaur eguneko zuzenbide internazionalaren oinarriak jartzen dituen).
- Ez da prozesu lineal bat, ez ad leku guztitan berdin gertatzen den prozesu bat. Erritmo ezberdinak izan zituen, lehenengo estatu aparatua hau eraikitzeke orduan erritmo ezberdinak. Alemanian ez du prozesu honek XVIII. mendera arte inongo aurrerapausorik ematen, XVI.mendean ehundaka entitate politiko egon ziren indarrean

## 6. GARAPEN KULTURALA

Inprentaren asmakizunaekin batera XV. mendearan erdialderantz beste fenomeno bat azpimarratu behar da XIV.ean hastiko dena:

### **Humanismoaren jaiotza eta garapena (unibertsoa ikusteko modu berria, iraultzailea)**

- Gizakia unibertsoaren erdigunean kokatzen duen kosmobiisio berria
  - Arte esparruan ondorio nabarmenak
  - Eredu klasikoaren berreaurkitzea
- Humanismoaren gizakiarenganako optimismo edo konfiantza suposatzen du eta gizakiaren aktibitateen sekularizazio antzeko bat dauka ondorio bezala
- Korrante nolabait arrazoionalista, hurrengo hiru mendeetan pentsakeran eta produkzio artistikoan garrantzia izango duena

### **Konfesionalizazioaren garapen paradajikoa**

- Intolerantzia erlijioiaren garapena: jazarpena, zentsurak, erlijio gerrak...batera bizi dira munduan. Adibidea: protestantismoa, Espainiar inkisizioa...

## 7. LEHEN GLOBALIZAZIOA:

- XVI. mendea baino lehen mundu ezberdinak bata bestetik isolatuta bizi ziren eta isolatuak ez baziren egon lotura lausoak izan zituzten. XVI. mendearen maierako aurkikuntza geografikoez eramanen dute elkartruko kultural eta ekonomiko etengabe batera eta lehenengo aldiz munduko bost kontinenteak komunikatu egiten dira. Mundu ezberdinak zirenak bat egiten dute eta horri GLOBALIZAZIOA deitzen diote.
- XVI. mendeko zabaltzea (Portugal eta Espainia) = zibilizazioaren arteko orekaren haustura (Txina, Inperio Otomandarra)
  - Europar hegemoniaren hasiera (dibergentzia), ondorioak:
    - Jarduera koerzibentziazko kontrola
    - Ekonomia globalaren bultzada eta mundu mailako lan banaketa
    - Zilarraren eta merkataritza triangeluarri esker bost kontinenteak konektatzen ziren
- Askoz gehiago izan zen aurreko garaiekin jarraipena, aipatutako aldaketa guztiak elite oso txikiengatik gertatzen dira. Europar gehiengoak nekazaritza eremuko kultura baten jarraitu zuen bizitzen. azpiegitura ekonomikoek eta errazio sozialek ez zuten inolako aldaketarik pairatu. gehiengoak nekazaritza ekonomia baten jarraitu zuten bizitzen. marko fundamentalak herria da XVIII-XIX da.
- Europarren indar handia itsasoaren kontrolan ikusten da, baina europar itsas inperioek XVI-XVII mendeetan mundu globalean 2. mailako aktoreak dira. Inperio erraldoi hauek kontrolatzen dute truke ekonomikoaren gehiena eta europarren kontrola ez da oso garrantzitsua. Txinan Europarrentzako oso interesgarriak ziren luxuzko gaiak ekoizten ziren eta beraiek jasotzen zuten Ameriketako zilarra baina Europan ez dute ezer interesgarria ekoizten Txinatarrentzat hortaz zilarraren trukea ematen da. Bere puntu gorenean Txinatar inperioak kontrolatzen dituzte 500 milioi pertsona.
- Demografikoki Europaren pixua munduan oso txikia zen, Europaren gailentze guztiaren indarra XVIII. mendean merkatal trafikoaren monopolio eskuratzean eta zientzia aldetik aurkikunde guztietan aurkitzen dituzten datuekin, hegemonia berri bat sortzeko erabiliko dituzte.
- **Dibergentzia handia** deitzen diote edo mendebaldearen gailentzea. Europako botere berriak aldaketa sakonak ekarri zituen. Jarduera koerzibentziazko kontrola, bi benetako ekonomia global baten sorrera, eta egun arte iraun duena mundu mailan ematen den lan banaketa edo dibisioa (Amerika, lehen gaiak ekoizteko geratuko da, Asia balore handiko enbriak sortzeko eta Afrika lan indar esklabu bat munduari emateko eta Europa bitartekari gisa).

- Aurkikuntza geografikoeri esker lortzen diren produktuetatik Europarrek etekin handiak lortu zituzten bereziki XVII. mndean emango den nekazaritza iraultzan (hemen sartuko dira European patata eta artoa, txokolatea edo tabakoa 8luxuxko produktu hauek eraldaketa batzuk sortzen dituzte).
- 1500 badakite Amerika dagoela baina ez dute bere osotasunean ezagutzen eta kosta batekin bakarrik markotzen dute. 1617an gaur egun ezagutzen dugun mundua ezagutzen dute gutxi gorabehera. Gauza asko aldatu baziren ere argi izan behar dugu, askoz eta handiagoa izan zela aurreko aldiarekiko berdintasunak.

#### HISTORIZITATE ERREGIMENA (R. Koselleck):

- Esperientzia-esparrua eta itxaropen-horizontearen tartearen aldentze etengabea = Etorkizuna edo itxeropena esperientziatik gero eta gehiago aldentzen da.
- XVIII. mendea: historizitate eklesiastikoa (eskatologia) “progresuaren” kontzeptuak ordezkatzeko du.
- Profectus “eklesiastikotik” > “progressus” sekularrera= hobetzeko posibilitatea munduaren haratagotik mundura pasatzen da, denboraren amaierak etorkizun ireki bati bidea ematen dio= Historia → hobetze etengabea.
- Bi kategoria historizitate erregimena identifikatzeko:
  - **Esperientzia esparrua:** inbiduo batek bizi izan duena, nire memoria
  - **Itxaropen horizontea:** gure gaur eguneko historizitate erregimena ezaugarri nagusia, esperientzia esparrua eta itxaropen horizontearen tarte geroz eta zabalagoa.



# 1.GAIA: EUROPAR MONARKIEN ERAIKUNTZA (C.a. 1450-1648)

Monarkiaren arrazoia erlijioa zen eta heuren misioa erlijiosoa izango da. Beste era batera esanda, Aro Berrian edozein botere mota ezin da legitimoa izan elijioaren laguntza edo bultzada ez badu.

## BOTERE SUBIRANOIA SENDOTZEA.

Subiranotasunari buruz hitz egiten dugunean, bere gaineratik inolako boteretik onartzen ez duen botereaz ari gara.

Garrantzitsua da jakitea monarkia hauek ez direla monarkia nazionalak. Hau da, monarkia hauek ez dute nolabait prefiguratu gaur eguneko nazioen aurrekaririk inolaz ere. Erregeen eta monarkien ideietan ez dago inolaz ere gaur eguneko nazio bat eraikitzekeo ideiarik. Garai honetan erregea *primus inter paris* izatetik argi eta garbi nobleen artean gailentzera pasatzen da.

**Zergatik gertatzen da prozesu hau Europako lurralde desberdinetan?** Momentu hartan Erdi Aroaren azken hamarkadetan existitzen ziren benetako bi inperioen (inperio sakro-hungaroa eta Aita Santuaren inperioa) krisiak utzitako hutsunea zegoen. Askok diote hutsune horrek ahalbidetu zuela beste monarka askok gora egin eta bere ikur eta sinbolo propioak bereganatzeko:

- Hau argi eta garbi ikusten da erabiliko dituzten tituluetan, adibidez, “Cesar” izena lehenago enperadoreari jartzen zitzaiona, Errusian “Tsar” deituko zaio.
- Beste asko saiatuko dira benetan zutik geratzen zen inperio bakarraren eskutik ohoreak eta tituluak lortzen.
- Bestalde, errege asko saiatuko dira heuren boterea legitimatzen titulu berrien bidez, beste erregeen gaineratik gailentzeko: Adibidez, XVI.mendetik Frantziako erregea “errege oso kristaua” deituko da. Bestalde, maiestate tratamendua bereganatzen hasiko dira.
- Eta azkenik, janskera ere inperialak izango dira, enperadorearen antzerakoak. Alor sinboliko honetan jarraituz, nolabait Arteak eta Letrak kororaren eta erregearen zerbitzura jarriko dira. Ez da kasualitatea garai hau izatea erretratu eta pintura piktorikoak hazten diren garaia. Lehenengo erretratuak, errege-erreginek eta heuren familienak ziren.

Aztertzen gauden garaia, palazio, gorte, jauregi... handiak eraikitzen diren garaia da. Proiektu sinboliko honen funtsezko helburua erregea, erregina eta heuren familia hilkorren gaineratik kokatzea da, beste era bateko gizakiak izango balira bezala. Hori dela eta, gero eta gehiago azpimarratuko da teoria politikoetan heuren botterearen jatorri jainkotiarra. Bi teoria nagusitu ziren:

1. Teoria absolutizta: minoritarioa zen eta uste zuten zuzenean erregearen boterea jainkotik zetorrela.
2. Teoria paktista: gehiengoak pentsatzen zuen teoria zen; uste zuten jaingoikoak lehendabizi herriari ematen ziola boterea eta paktu bidez herriak ematen ziola boterea erregeari. Honek legitimatzen du erregea hiltzea honen paktua, hau da, erresuma babeztearena, mozten bada. Hau elizaren parte haundi batek defendatutako teoria zen. XVI.mendean ordea erregeari leporatu beharrean, paktua mozten bada, herriak erabakitzen du erregearen ministroak direla errudunak.

Bestalde, iru alor edo espazio desberdinetan zaiatuko dira heuren boterea oinarritzen:

- I. **Botere militarra:** erregearen monopolio bihurtzen da gerra eta hemendik aurrera nobleek ezingo dute jendea armatu.
- II. **Baliabide fiskalak haunditu:** dirua eta baliabideak behar dira eta horretarako ogasun aparatu eraginkorra sortu behar da. Hau egitea nahiako zaila izan zela esan dezakegu, XVI.mendean erregeak ez dituelako behar dituen funtzionario edo agenteak. Hordura arte erakunde bakar batek zuen leku guztietara heltzeko ahalmena: eliza. Erregeak orduan, batzuetan merkatariak eta beste batzuetan jauntxoak kontratatuko ditu. Prozesu guzti horretan presio fiskala asko handituko da, batez ere zeharkako zergen bidez. Beste baliabide bat kargu eta tituluen salmenta izan zen. Erregeak dirua behar duenean tituluak salduko ditu, nobleak edo aristokratak ez diren pertsoneri, noble bihurtzeko.
- III. **Burokrazia edo koroaren administrazioa sortu eta haunditzea:** hasieran erregeek ez dituzte agente edo funtzionario asko eta hortaz aparatu hori sortu behar dute erresumaren azken txokora heuren boterea eramateko eta erakusteko. Erregearen zerbitzura dauden pertsona hauetatik klase sozial berri bat sortuko da: unibertsitateetan formatutako pertsona talde bat, European *letrados* moduan esagutzen direnak (Frantziar *robins*, Italian *togati*) Hortaz, esan dezakegu bere administrazioa sortuz, erregeak bere klientela sarea izugarri handitzea lortzen duela, hau da, bereganako leialtasuna duten pertsona eta klase sozialen haunditze bat ematen da sortzen diren erakunde batzuen bitartez, adibidez, kontseiluak. Estatua eta koroa gero eta konplexuagoa da eta funtzio konplexuagoak ditu, hori dela eta, koroak kontseilu desberdin espezializatuak behar ditu (gerra kontzeilua, ogasun kontzeilua, lurralde kontzeilua...). Horregatik sistema hau sistema polisinoliada dentzen da, hau da, kontseilu asko dituen sistema politikoa.
- IV. **Gastu militarren igotzea:** monarkia Hispanikoaren gastu militarra boskoitu izana adibide garbienetakoa da.

## ERREGETZAREN IDEA

**Zer da erregetza?** Familia baten proiektu politikoa da.

**Hasburgotarren adibidea:** Hasburgotarren kasuan hasiera batean, X.mendean, haien influentzia Rhin ibaiaren inguruan, eta beste familia feudal bat litzateke, ez daukate ezer berezirik. XII.mendean lortzen dute ezkontza bidez, gaur egungo Eslovenia, eta Austria inguruan lurralde mordo bat kontrolatzea. XV.mendean dena ezkontza bidez batzen dituzte herbeheretan, Espainia, India, Bohemia, Hungaria eta Italia izugarrizko jabetzak izatea. Familia noblea> errege dinastiako familia. Gerra biologikoa izango da. XV. mendean zehar titulo faltsuak erabiliz Habsburgotarren beraien burua antzinateko enperadore erromatarren oinordekoen buru izendatu zuten, beraien boterea legitimizatzeko dokumentazioa faltsutuz. Hau ez dute Habsburgotarrak bakarrik egingo, Europa osoan egingo da Euskal Herrian adibidez.

**Teoria Tubalista:** teoria honen bitartez argudiatu nahi zen euskaldu guztiak nobleak zirena inoiz ez zirelako kutsatuak izan beste arraza batengatik. Teoria honen ustez, Tubal etorri zen gure lurraldeetara eta berak euskara ekarri zuen eta hasiera batean euskara penintsula osoan hitz egiten zen baina gero feniziarrek, erromatarrek eta abar sartu zirenean, euskara penintsulako txoko txiki batean geratu zen eta horrek frogatzen du euskaldunak odol garbikoak direla.

Bestalde, erregearen boterea gailentzeak aurretik existitzen diren beste botere batzuk gainditzea eskatzen zuen:

- **Aristokrazia:** horretarako aristokraziaren domestikatzea eman zen. Hau Gaztela eta Aragoi lortzen da XV.mendean eta prozesu hau Errege Katoliko mendean bukatzen da. Ingalaterran prozesu hau motelagoa da. Frantzia aristokraziak botere handia izango du XVII.mende erdialdean.
- **Hiriak:** hiriak eta hiribilduek Erdi Aro amaieran autonomia oso zabala zuten eta botere nabarmen nahiko zabal baten gain. Erregeak, hauen leialtasuna ere irabazi behar zuen. Mesedeak, baliabideak, tituluak... emango ditu elite horien leialtasuna lortzeko. Herri bakoitzean bere ordezkari zuten bat jarriko du. Monarkia Hispanikoan *korrejidore* moduan ezagutzen da.
- **Herriak ordezkatzeko duten asanbladak:** Behe Erdi Aroan jaiotzen dira funtzio batekin: erregearekin egindako paktua errespetatzeko eta erregeak paktua betetzen ez duen asanbleak daude protestak egiteko eta tradizioa mantentzeko (egungo Espainian *gorteak* deitzen dira).
- **Eliza:** erregearen botereak gora egiteak badakar elizaren boterearen murriztea. Europar monarkak XV. mendetik zaiatu ziren elizaren botere hori murrizten. Aita Santuarekin akordioak eginez, konkordatoen bidez lortuko dute adibidez hamarrenaren zati inportante bat erregearen ogasun aparatua joatea.

## 1.1 MONARKIA KONPOSATUAK.

Kontzeptu historiografikoa da, fenomeno bat deskribatzeko historiagileek sortutakoa. Kontzeptu honen funtsezko ideia, printzipe edo koro edo errege batek lurralde anitz batzen dituenean, baina lurralde hauek bakoitzak bere izaera politiko, juridiko eta instituzionalak guztiz kontserbatzen dituztenaren ideia da. Lurralde huen arteko lotura, alde batetik, koro edo printzipearekin duten lotura da eta bestetik, lotura erlijioso izango da. XVI-XVII.mendeko monarkia gehienak konposatuak ziren, Hasburgoak esaterako (Indiak barne). Frantzia eta Ingalaterra (Eskozia, Gales...) ere monarkia konposatuak ziren.

Lurralde eta entitate politiko hain ezberdinek kohesio bat lortzeko, elementu nagusi batzuk izan behar zituzten:

1. **Errege berdin batekin lotura.** Koroaren estatus soziala emateko gaitasuna, koroak lortzen du bakoitzaren estatus soziala erregulatzeko gaitasuna. Lurralde ezberdinetako eliteek oso kontutan izango dute kohesio bat lortzeko orduan.
2. **Erljioa.** Normalean XVI.mendetik aurrera subditoek eta errege denek erlijio berbera izan behar dute.
3. **Gortea.** Bertan biltzen dira lurralde ezberdinetako eliteak eta han egiten dituzte lotura berriak eta beste identitate bat eraikiko dute, gortean transformatzen delako eliteen bilgune batean. Gortek leku berberean bi dimentsio dauzka: alde batetik, erregearen etxea da, erregea eta bere familia bizi diren lekua eta beste aldetik, erregearen administrazioa eta boterea dagoen lekua izango litzateke. Hortaz, leku berberean dimentsio domestikoa eta administratiboa egongo litzateke. Dena dela, gortean erregeak botere esparrua sortzea proiektu inteligente bat izan zen.

XVII.mendeko Juan Solorsano teorialari politikoaren aburuz, monarkia batetan lurralde desberdinak bi era desberdinetan batu daitezke:

1. Bigarren mailako bildura: erresuma edo probintzi bat beste erresuma baten parte izatera pasatzen da eta biak juridikoki berdinak izan behar dira, betebeharrak eta eskubide berdinekin. Adibidez, Amerikako kasuan, Indietako domeinu guztiak Gaztelaren estatusa daukate.
2. Bildura printzipala: bildu eta gero, erreinu edo entitateak modu desberdinean tratatuak ziren, euren lege, foru edo pribilegioak gordez. Monarkia Hispanikoan orokorrean erabiltzen den metodoa, Aragoi, Valentzia, Katalunia, Napoles, Gipuzka, Bizkaia, Araba... Erregeak ezin du inola ere lurralde hauek kontsuzio edo egitura propioa aldatu, ezin du foruaren koma bat aldatu (hau da paktuaren muina).

Monarkia konposatuak funtsean koroak, lurralde bakoitzeko eliteek eta herriak egiten duten paktu politikoak dira. Paktu honek, egonkortasun oso anitza ematen dio oso ezberdina den entitate politikoari, hau da monarkia konposatuari eta hau hiru bateragune erabiliz egiten da: erlijioa, erregearen sobiranotasuna eta gortek.

Nola deituko zenukete Espainiako erregea XVII.mendean?

-Espainiako lehen titulua Independentzia Gerran agertzen da: ez da leku edo entitate guzti hauen errege, bakoitzaren erregea da.

“Yo Don Felipe, por la gracia de Dios, rey de Castilla, de León, de Aragón, de las dos Sicilias, de Jerusalén, de Portugal, de Navarra, de Granada, de Toledo, de Valencia, de Galicia, de Mallorca, de Sevilla, de Cerdeña, de Córdoba, de Córcega, de Murcia, de Jaén, de los Algarves, de las islas de Canaria, de las Indias Orientales y Occidentales, islas y tierra firme del Mar Océano, archiduque de Austria, duque de Borgoña, de Brabante y Milán, conde de Habsburgo, de Flandes, de Tirol, de Barcelona, señor de Vizcaya, y de Molina (...)” (1597)

Ondorio garrantzitsuak: erregeak eta koroan ezin du zuzenbide bakar bat sortu, herrialde bakoitzari bere konstituziora egokitzen den zuzenbide propio bat eman behar dio. Erregeak ez du zuzenbide bat sortzen (Estatuak sortu), tradizioa errespetatu eta aplikatu egiten du eta funtzio nagusia lurralde bakoitzari dagokiona ematea litzateke. Ezin du tradizioaren aurka dagoen ezer egin, aurretik datoren zuzenbide bat aplikatzen du, alegia. Orden edo eredu juridikozionala → ez zen legedia aplikatu/sortu.

## 1.2EUROPAR MONARKIEN ERAIKUNTZA (1492-1648). II. ERREFORMA, KONTRAERREFORMA ETA KONFESIONALIZAZIOA

### Kristaudiaren haustura. Aurrekariak

Monarkia haundiek lortzen duten egonkotasuna kolokan jarriko da XVI.mendean gertatzen den gertakari batengatik: erreforma protestantea. Historiagile katolikoek kritikatu izan dute nolabait erreformaren aurka egingo zen kontraerreforma baten ideia. Behe Erdi Arotik iada existitzen dira bultzada erreformista eta bultzatzaileak eliza katolikoaren barruan. Nahiko zabaldua zegoen elizaren barruan Aita Santuaren, kleroaren, ahulkisantuaren eta praktika erlijioso edo superstizioen kritika bat, batizpat elite intelektualen artean. (Kontzeptuak argitze aldera: eliza batailatuta dauden pertsona guztien bilkura da eta kleroa berriz eliza berak gizartetik banatzen duen espezialisten sektore bat da, kristau herrian zaindu eta hezitzeko).

Hortaz, hau berrezteko iada Behe Erdi Aroan badago kleroaren eta Aita Santuaren kontrako kritika bat, oso edatua zegoena. Ahulki Santuaren, edo gaur egunean Vatikanoren, gainbehera oso nabarmena zen, batez ere “Avigmen Sismatik”. Gertakari hau eta gero, prestigioa berrezkuratzeko saiakera egiten da, adibidez, *Konstatako Kontsilioa* eta *Letranoko Kontsilioa*. Saiakera hauek egiten dira kontzilio hauetan baina ez dute lortzen Aita Santuaren eta kardinalen autoritatea behereztea. Honez gain, prozesu berberean garatzen da elizaren barnean mugimendu edo joera bat: kontziliarismoa. Kontziliarismoa

elizaren barneko korrante bat da eta kontziliazioa Aita Santuaren gainetik dagoela eta benetan erabakiak hartu behar dituen elizaren batasuna dela defendatzen du.

### Aurrekariak. Erlijiotasunherrikoien kritika

Behe Erdi Arotik elizaren barnean erlijiotasun herrikoien aurkako kritikak daude:

- A. **Humanista eta erreformistek debozio herrikoiak kritikatu zituzten.** Herri xumean bada erromesaldietarako gustu itzela. Eliteen artean bazeuden kritiko edo erreformista batzuk uste zutenak herri xumearen siniskera askok paganotasunaren kutsua zutela. Erromaren korrupzioa salatzen zuten: Indulgentzia nagusi zen eta erreformista hauek hori kritikatzeko zuten (Lutero, esaterako). Erromaren korrupzioaren kritika giro apokalipto batean egin zen. Alemanian XVI. mendean mugimendu milenistak zabaldu ziren, hauek munduaren amaiera zetorrela esaten zuten (hondamendi naturala, izurrite beltza...). **Zer da indulgentzia? pekatu baten ondoriozko zigorra kendu ahal izatea diruaren truke (barkamena, bihozberatasuna).**
- B. **Giro apokaliptiko baten zabaltzea, XV. mendetik XVI. mendearen hasierara arte.** Sanjuanek esan zuen bere apokalipzian deabrua garaitu eta gero lurrean Kristoren mila urteko erresumaldi bat egongo zela. Milenarismoa, munduaren amaiera eta Kristoren etorrera gertu daudela esaten duten mugimendu apokaliptikoa da. Normalean sozialki mugimendu guzti hauek mugimendu erradikalak dira. Alemanian daude mugimendu askotariko hauek, Aita Santua antikristorekin lotzen dutenak.

### Lutero (1483-1546)

Lutero monje agustino bat zen. Bere 95 tesi teologikoen, erlijioa ulertzeko beste modu bat ematen zuten. Luteroren teologiaren ezaugarri nagusia: arimaren salbamena bakarrik Jesukristorengan fede izanda, hots, fedearen bidezko salbamena da.

-Jesukristoren merituek bakarrik salbatu ahal bagaitu ondorioa: indulgentziak ez dute ezertarako balio. Hau da, dena Aita Santuaren eskuetan baldin badago indulgentziak ez dute ezer balio.

1520an, Erromak kondenatu egingo du eta 1521ean eskumipatua (descomulgado) izango da. Bestalde, Luteroren lan doktrinala bi ideietan banatzen da:

1. Fedea emandako justifikazioa.
2. Eskrituren nagusigo osoa: bere ustez fededunak ez du inolako bitartekaririk behar mezua ulertzeko edo testua interpretatzeko, hau librea izan behar da. (ez apaizik, ez tradizioz...), Honek kristaudiaren hausturan ondorio garrantzitsua dauka: tradizioa ez da izango fedearen iturri, bakarrik egituraren.

### Erreforma eta errebolta

Giro apokaliptiko batean kokatu behar dugu. Erreforma edo erreformaren hedapena batera joan zen edo maiz uztartu zen aldarrikapen sozial erradikalez. Erreforma salatzen den heinean badaude erreforma sozial erradikal bat proposatzen duten taldeak. Dena,

lehen aipatu dugun klima edo giro apokaliptiko baten testuinguruan. Erreformaren lehen urte hauetan, hainbat altxamendu eman ziren, hala nola, nekazarien gerra deitzen dena (1521-1525), ebanjelioa jaun faudalen aurkako argumentu moduan erabiliko dute → proposamen sozial berriak egiteko, egitura sozialaren eta politikoaren kritika tinko eta gogor batekin. Elizak suntsitu egingo dituzte, kleroaren aurkako borrokak maiz izango dira.

Famatuenetarikoak Anabaptistak izango dira (hauek batailoa umeek ez jasotzea baina adin nagusitasunera iristean hauek aukeratzea proposatzen zuten). Antolakuntza nahiko eskaxeko taldeak ziren eta hasiera batean edozein mugimendu bezala hasieran propoatzne duten indibiduoaren eradalketa espiritueal radikala, baina denbora joan ahala, ekintza bortizetara eta biolentoetara pasatuko dira berdintasun soziala eta berdintasun ekonomikoa lortzeko proiektu erradikal batekin, hau da, norbanakoa espiritualki aldatzetik gizarteak aldatzeko programa batera igaroko dira.

### Juan Klabin (1509-1564)

Erreformisten 2.belaunaldiko erreformista handia izango da. Hau Luteroren teorian oinarritzen da: Jangoikoaren nagusigo guztia izango da bere ideia nagusia. Jainkoaren aurrean gizakiak egiten duen balio eza (gizakiek ez dute beraien merituen bidez salbatzeko ahalmenik). Ezin du ezer egin bere burua salbatzeko: predestinazioa.

Bere Jaungoikoa norbanakoaren detailerik txikienak ere ezagutzen dituen da. Bestalde, teologikoki proposatzen deuna erabateko predestinazioa da, hau da, ezin dugula ezer egin gure burua salbatzeko.

Garai honetan, Kalbinismoa zabaltzen da Suitzatik (Ginebratik) Europako hainbeste eramutara. Monarkia konposatuekin zerikusia/erlazioa: adibidez Herbeheretara, Eskoziara, Poloniara eta Bohemiara, batez ere Hungariara. Frantzia ere asko zabalduko da. Guda ziklo bortiz bat sortuko du, erlijio gerrak.

### Trentoko kontzilioa

#### **Doktrina/teologia:**

Eliza unibertsalaren bilera izango da Trentoko Kontzilioa. Bilera desberdinak izan ziren, zazpi urtez luzatu zirenak. Kontzilioak berresten du, erreformaren aurrean doktrina katolikoak, berresten du fedearen iturriak ez direla soilik eskrituetara mugatu (biblia, tradizioa eta magisterio). Biblia kontzilioaren aburuz ezin zen libreki interpretatu, elizaren irakaskuntzak jarraituz soilik ulertu zitekeen modu egoki batean. Ondorioz, salbamena ezin du bakarrik fedeak lortu (Lutero eta Kalbinorentzat bai, kontzilioarentzat ez). Fede eta sakramentuen bidez lortu daiteke.

-Elizaren sakramenduak (ikurrak) 7 dira: gauza supernatural baten manifestazio material bat. Sakramentu hauek ez dute lagundu bakarrik egingo, beharrezkoak izango dira.

- Eukaristia: Kristoren Gorpua ogitan eta bere Odola ardoan “konsagratzea”, horrela Jesukristoren sakrifizioa berrituz mistikoki eta fededunei hurbilduz.
- Batailoa: pertsona bat transformatzen da → errege, profeta eta apaiz (kristoren atributoak direlako). Uraren bidez kristoren atributuak jasotzen ditu.
- Ezkontza: sakramentu bakarra apaiz batek eman behar ez duena. Bikoteak batak besteari ematen dio sakramentua
- Elizarentzako apaiz konsagratzea, ez bakarrik batailotik apaiz izatea, juridikoki ere izatea.
- Extremaunción (oliadura): azken momentuko untzioa; olio bedeinkatuz igurtzi hil aurretik.
- Jaunartzea
- Aitortza/konfesioa
- Kontzilioan Ama Birgina eta santuen eredia azpimarratu egiten da, horrek balio duelarik kristau bizitza egoki bat eramatera.

### **Diziplina:**

Teologikoak ez direnak dira: ez da dogma bat, ez da sinestu behar. Diziplina asuntu hauetan kontzilioak eleiz gizonet emakumeen formakuntza, debozioa eta morala hobetzeko hainbat neurri hartzen zituen.

- Hasteko, seminarioen sorrera (Europako seminarioak handiena Bilbokoa)
- Herri hizkuntzan (lengua vernacula) katezismoak sortuko dira eta inprentaren bitartez hedatu egingo da.

### **Liturgia:**

Latinez egingo da, nahiz eta katezismoak egingo diren jendeak doktrina ondo ulertzeko. Protestanteen aurrean, protesta moduan azpimarratzen da debozio tradizionalen funtzioa (errosarioa, kofradiak, erromesaldiak...). Beti ere eleiz gizonen gainbegiratzearekin.

### Europako geografia berria

Erreforma 1521etik aurrera inperioan zehar polbora (bizkor) moduan zabalduko da (Inperio Sakro Erromatar Germanikoa). Han, hiri garrantzitsuenen gehiengoak hartu eta onartu zuen erreforma (Estrasburugo, Asburgo, Hamburgo...). Nekazarien errebolta protagonizatu zuten taldeen ametsak zapuztuz, egia esan ez zuen gizarte arloan aldaketa nabaririk ekarrik. Kontran goi mailako eliteen taldea gehiago sendotu zuen; zuzen zuzenean botere erlijioso beraien eskuetan dutelako (beraien erresuma, hirieta eta abarretako elizen buruak izango dira). Erreforma hartzeko orokorrean eztabaida publikoa egiten zen, bertan erreforma hartu edo errefuxatu egiten zen erabakitzen zen. Hartzen bazen erabaki hori, santuen irudien Ama Birginaren eta elizen suntsipenarekin jarraitzen zen. Hainbat printzipe ere erreformara batu ziren.

XVI. mendearen erdialderatz, Alemania erabat banatuta geldituko da, egun dirauen egituran. Iparraldea protestante bezala geratuko da eta hegoaldea katoliko gisa. Europako beste eremu batzueri dagokioenez Luteranismoak garrantzia izan zuen. Baltikoaren



kasuan, erregearen aparatua boterea izugarri handitu zuen. Herbeheretan Frantzia eta Eskozian kalbinismoa hedatu zen eta hau Ingalaterraren Erromarekiko banaketarekin (Enrike VIII) geografia erlijioa guztiz ezberdina egituratzen du Europar hamarkada batzuk lehenago zegoenarekin konparatuta. Kristauidiraen mapa erlijioa berri honek errenazimenduko monarkiei pertsonalitate espezifiko eta jakin bat eman zien. Bi aspektu nagusi izan zituen gertakari honek:

-Botere politiko horiek disziplinamedu sozial oso zorrotza burutzea → sorgin ehizak ematen dira testuinguru honetan (ez kasualitatea).

-Konfesionalizazio prozesua → fedearen eta helburu politikoen arteko bat egitea.

Honek determinatuko du guztiz XVI. mendearen erdialdetik aurrera mende oso batetan inperioen arteko lehia, edo potentzien arteko lehia guztiz baldintzatuko du.

### Monarkia Hispanikoa

#### **Karlos V. (1516-1555), espantsioa**

Monarkia agregatuen edo konposatuen artean existitu zen handiena izan zen. Mendebaldean bere denborara arte ez zen aurretik existitu horrelako inperiorik. Bere inperio hau inperio konposatua dugu, datorrelako herentzia bidez, bere pertsonan batuz lurralde oso anitzak Europa guztitik zabaltzen direnak, baita Amerikan ere. Parte bat bere aitaren heriotzaren ondoren jasotzen du (Borgoñako herentzia, Herbeherak). Fernando Katolikoaren heriotzean jasotzen du Aragoi, Gaztela eta Indiak. Azkenik, dana osatzeko 1519an beste aitona bat hiltzen da eta hor jasotzen du Austria, Enperadore bihurtuz. Identitate selektiboa zen hau, printze batzuek aukeratzen baitzuten enperadorea. Juridikoki Espainiar inperioa, inperio izango da Karlos V.aren gobernuan. Orduan patrimonio guzti horiek batzen ditu bere buruan, eta honek ekarriko ditu etsaiak: hiru fronte geopolitiko bereiztu ahal ditugu bere erresumaldian:

-Frantzia 1521-1525. Italian interesek talka egiten zuten.

-Turkia: Mediterraneoako sare kormetzialengatik egongo dira borrokan Inperio Otomandarraren aurka.

-Protestante Alemanak: Karlos V.ak protestanteak eta Aita santuak akordio batera heltzen saiatu zen; horretarako Karlosek 3 dieta ezberdindu zituen: Worms (1521), Espira (1529), Augsburgoko (1529-30)? (NO SE) Protestanteen fronte hau bakarrik lausotuko da 1555ean, bere erresumaldiaren azken denboran, Augsburgoko bakearekin. Bake hau heltzen da bi aldeak ez direlako gai militarri gailentzeko. Gainera, intolerantzia erlijioa inposatu egiten da, printzipio bat ezarriko da hurrengo hamarkadetarako *cullus regio ellus religius* → Nire erlijioa da nire erregearena.

Erresuma barnean ez dauka arazo handirik, bakarra dugu: Gaztelako komunitateen Errebolta 1520-1521. Errebolta sortzen da monarkia konposatu horren barnean gaztelako elite batzuek uste dutelako atzeritarrek botere larregi dutela eresumarekiko. Gaztelako erresuma edo parte batek uste du bere nortasun juridiko-politiko ez dela errespetatzen.

Zentralizazioa eta botere kontzentrazioaren aurkako erreakzio politikoa dugu, hurrengo iraultzetarako eredia izango da (Arabian ere ondorioak izan zituen).

\*Gorteak vs Gortea

-Gorteak: parlamentu antzekoa

-Gortea: bertan erregea bizi eta mamitzen dira eregetzaren asuntoak

Portugalen ere XV. mendetik aurrera Koroa gailentzen da. Autore batzuen aburuz Portugal eta Espainiaren lehenengo espantsio inperiala etorriko zen errekonkistaren bultzadagatik. Hor badago horrelako dinarmika esploratzaile bat Kanarietara, Iparraldeko Afrikara eta gero Ameriketara iristen dena. Portugaldarren kasuan Azoretara eta ondoren India.

Potentzia bien lurralde ez kristauen konkistak Aita Santuak legitimizatu zituen, lurralde horiek ebanjelizatzeke helburuarekin. Hau ematen da Tordesillaseko Itunean 1494, konfliktuak ekiditzeko marrazten da marra imaginarioa mundua banatzeko. Portugaldarrak laister hedatzen dira Indiatik. Hor sortzen da erreinu bat (erreinu maritimo artifiziala): itsas erreinua, Estado da India Portugaleko erregeak sortu zuen esparru orientalak kudeatzeko. Indian ezartzen ziren merkatari portugaldarrak Estado da Indiaren parte ziren.

### **Felipe II (1555-1598), krisia**

1580an Portugal Felipe IIaren korora integratzen denean ematen da benetako monarkia katoliko unibertsal bat sortzeko aukera. Arazoa: metatuko duten botere guztia euren etsaiak bateratuko ditu Habsburgotarren aurka, eta Europa gerra bortitz batean sartuz (helburua ez zen Europa, baizik eta inperioa zabaltzea).

Karlos V.ak bere domeinuak bitan banatuko ditu eta Felipek ez ditu Austria eta Herbeherak jasoko. Bera heltzen da korora Trentoko Kontzilioa ospatzen dagoen unean. Horrek konfesionalizazio batera eramaten du. Katolisismoaren defentsarekin identifikatzen da.

Bere erresumaldian ere ematen da Gaztela edo Gaztelaren eredia monarkia konposatuko beste leku batzuei inposatzeko saiakera bat. Eta lurralde horien kontrola osatzen dituzten eliteen bazterzea (ez kasu guztietan), debora honetan lortzen dute baztez ere euskaldunek (bizkaitar eta gipuzkoarrek) beraien noblezia kolektiboa erregeak onartzea; arrazoiak, erresumaldiaren amaieraratz armada handia finantzatzeko alde batetik Bizkakaiko eliteek diru laguntza oso handia ematen dituzte eta Felipe II.aren gortean dena kontrolatzen duen Azpeitiar bat aurkitzen du, influentzia handia duena euskaldunen nobleziaren berrespena onartzeko.

“Kastillanizazio” saiakera bat dago, beste lurralde elite batzuk baztertzeko asmoa dago. Kontestu honetan soetzen da Felipe II.ak izango duen arazo handienetako bat,

Herbeherretako errebolta. Ez du zorterik, Frantsekin akordio batera iritsiko da, baina 1566an hasten da probintzia hauetan Herbeheretan Kalbinismoa hartu zuten eliteen eta sektoreen artean sortzen da errebolta itzela Orangeko Guillermo buruzagi duena (Albako dukeak erreprimitzen duen errebolta famatua). Hortik aurrera 10 urte baino gehiagoz tirabirak daude Madril edo Gaztela eta Herbeheren artean.

1579an sinatzen da Utrech-eko tratatua eta Herbehereak osatzen zituzten estatu ezberdinek akordi batera heltzen dira bata bestearen defentsa bermatzeko → Espainiarren zergen aurka egiteko, protestanteen jazarpena eteteko eta beraien instituzio propioak ezabatu nahi duen monarkiaren aurka egiteko. Hau da lehenengo pausua eramango duena gertakari politikoki garrantzitsuenak → abjurazio akta. Abjurazio akta, 1581ean definitiboki Herbeherek erregearekin duten kontatua apurtu egingo dute, hau da, monarkia konposatuan parte gehiagorik ez hartzea erabakiko dute. Herbehereak banatu egiten dira, probintzi batzuk Kalbinistan egungo Holanda eta hegoaldean katolikoak Flandria.

Politikoki arazo interesgarri eta oso sinplea sortzen da Probintzi Batuetan, ez dute nahi Felipe II.aren koroarekin ezer egin nahi, banatu egingo dira eta beste entitate mota bat sortuko dira eta arazo konstituzional bat sortuko da ez daudelako ihituta buruzagi gabe bizitzera. Hortik oinarrituta egitura errepublikar bat sortu beharko dute, baina denboran oso zaila zen, errege bako baten sistema batean pentsatzea, sistemari egonkortasuna ematen baitzion. Beraz, Portugalen integrazioa oso garai optimista bat zabaldu zuen, zapuztu egiten a bai gertatzen ari diren Herbeheretako konfliktuekin bain Isabel I.a gerran sartzearekin, Holandesak laguntzera sartuko da gerran. 10 urte beranduago Frantziarrak er sartu dira 1595ean, beraz nahiko lasai hasi izan zuen erregealdi bat izatekin, bere bizitzaren azken etapan beste hiru potentziaren aurkako gerra baten bilakatuko da (Ingalaterra, Frantzia eta Herbeherak).Honi lotu behar zaio Felipe II.ak gerrateen ondorioz sortu zuen zor itzela, 4 bankarrotara eraman zutena, ondorioz dirua ezin izango du itzuli. Izurritearekin eta uzta txarren garai batekin uztartzen da.

Kontestu honetan hasten dira igotzen, eta honek aldatuko du joera urte batzuetan, bere kontra lehi egiten duten potentzia bi garrantzitsuenak, bat Ingalaterra eta bestea Herbehera (edo potentzia batzuk): Ingalaterrak bere lehen espansio inperiala, bi eremutan eman zuen, Eskozia eta Irlandarantz. Irlandako konkista, lehenengo aldiz XVI. mendean saiatu zena, izugarritzko baliabideak gastatu zituen, hiru urte monarkiaren aurrekontuak baino gehiago. Egongo da, debora joan ahala irlandarren erresistentzia bat, baina irlandarren espropiazio eta anikilazioa izan zen 1641ean irlandarrak aldatuko dira ingelesen aurka eta errepresio moduan 44.000 irlandarrek euren lur guztiak galduko dituzte eta hauek protestante ingeleseri eman zitzaizkien. Erabiltzen zuten argumentua: irlandarrak barbaroak dira, ez dute erromatarren kultura ezagutu, erdi paganoak eta katolikoak dira.

Beraz ingelesak beharrezkoak dira hauek ebanjelizatzeko. Irlandarrak kulturalki azpitik zeudela argudiatzen zuten.

Eskozian ez da bortizkeria handiarekin egiten integrazioa, herentzia bidez egiten baita. Estuardoak Isabel I.aren ondoren Ingalaterra eta Eskoziako koroak biltzen dira. Baina kalbinismoa zabaltzean nolabaiteko erresistentzia dugu.

Dena dela, Irlanda eta Eskozian izandako arrakastak koroa indartuko du bere etsaien aurka eta honek baimenduko dio Ingalaterrari XVII. mendearen hasieran benetako espantsio militarra egitea. Txiroen espropiazioen bitartez eginiko espantsioa, hain zuzen ere.

### Hogeita hamar urteetako gerratea eta joera aldaketak

Hogeita hamar urteetako gerrateak joera aldaketa bat suposatzen du: hegemonia iberikoaren amaiera eta iparraldeko botereen (Ingalaterra, Frantzia...) indartzea.

Ez da guda bakar bat, gero a posteriori eman zaion definizioa baizik. Konfliktu multzo bat da, edo garai hartako Europak konpondu behar zituen lau funtsezko arazori emandako erantzun kargatu bat da. Gerraren hedapena ikusita askok munduko lehenengo mundu gerra moduan deskribatu izan dute. Hasiera konfliktu txiki bat zena, konfliktu inperial eta global batean transformatu zen. Gainera, gero eta argiago daukagu ez zela izan bakarrik erresumen arteko gerra bat, benetan jokoan zegoena ziurrenik zen Europatik kanpo zegoen (Ameriketara eta Asiarantz) aurkitu eta ustiatu ahal ziren baliabideak. Baliabide hauek Europar potentzietan gero eta garrantzitsuagoak izango dira, baliabide hauei esker Europar potentziak gailendu ahal dira besteen aurrean.

Lau oinarritzko arazo emandako konponbidea

- Arazo erlijiosoa: protestante eta katolikoaren artean gero eta elkarbizitza zailagoa.
- Hasburgotarren hegemoniak kontinentean desoreka itzela sortzen zuen
- Frantzia/Espania konfliktu konpondugabea
- Baltikoan zeuden interes komertzialak

Prozesua ondo ulertzeko gehitu beharreko beste faktorea: Fernando II.aren enperadorearen politika inperiala (Inperio sakro erromatar eta germanikoko enperadorea). Alde batetik, inperioa eta inperioko erresuma txikiak eta printzipatuak berriro katolizatzeko proiektu bat dauka, batez ere jesuiten bidez. Beste aldetik, zentralizazio prozesu bat, bere koroaren boterearen aregotze prozesu bat.

Fernandoren joera hau gailentzen bazen, hau Europa mailan hasburgotarren hegemoniaren confirmazioa izango zen. Testuinguru honetan Palatinatuko gerra hasten da. Gerra honen hasiera faktore batengatik → Bohemiako errebolta erlijiosoa. Hemengo protestanteen altxatzen dira erregearen aurka (Fernando II). Ez dute errege katolikorik eduki nahi, eta beraz, hauek Federico V.a aukeratzen dute (palatinatuko elektore bat).

Hasiera batean gatazka edo gerra hau alemaniar mugatzen da (1625 arte), potentzia atzerritarrek ia ez ziren azaldu (ezin zuten parterik hartu), salbuespen batekin → espainiako hasburgotarrena. Hauek Austriak deitzen dira, eta Austriak gerraren fase honetan parte hartzen dute Vienako lengusuei laguntza emateko xedearekin. Lehenengo fase honetan hasburgoajtarrena da nagusigoa, gainera gatazka nolabait distantziak lausotutako familia-loturak berriro ere berretsi zituen. Nagusigo honek, printzipe protestanteen kezka eta alarma biztu zituen, eta horrek atzerriko laguntza eskatzeko orduan ez zuten inolako dudarik eduki.

Momentu horretan sartzen dira gerran Suedia eta Dinamakra (1625), elkartasun eta solidaritate erlijioso medio, nahi espansionista osos argia zuten biek. Baltiko horretan interes komertzialen defentsan sartu ziren gerran beraz. Aliantza honek, urtean joan ahala bere zentzua galtzen du, erlazioak lausotuz eta euren fronteak indarra galtzen dute (anti hasburgo). Honek eta Nordling-en inperialek lortutako garaipena eraman zuen Pragako bakera 1635ena. eta urte batzuk lehenago konfliktu hori amaitutzat emango zen, alabian frabtzarrak sartzen dira, (ordurarte neutraltasunean beti). Momentu honetatik aurrera Hasburgotarren gainbehera ia ia ziurra da: alde batetik beste potentzia bat sartzen da (frantzia). Bare arazo itzelak sortzen ditu eta 1600. urtean hasten dira bai Portugalen eta katalunian errebolta eta baliabideak erreblta horiek erreprimitu et akonpontzera ere bideratu behar dira. ez dira horiek bakarrik, Bizkaia, Napolesen ere, Ameriketara ere.

Hasburgotarren porrota itzela izango da eta ondorioen artean daude:

- Enperadoreak egin behar izan zituen konpentsazio edo emate territorialak
- Luteranismoa eta kalbinismoa argi eta garbi garaile rten ziren kontra erreformaren aurka. Inperioan printzipeen eskubide germanikoak enperadorearen aurrea garaile irtetzen dira. Horrek partzialki azaltzen du egungo alemaniaren geografia politikoa.
- Maila global batean Monarkia Hspankoan ez zuen lurralde askorik galdu (1581etik Herbehereak). Garrantzitsua dena monarkia hispanikoak bere hegemonia globala galdu egingo du, mendearen bigarren erdialdean Ingalaterra eta Franziak eta Holanda izango duten rol hegemoniko berri horrek.
- Guzti hau Westfalia bakean burutzen da, 1648an alegia. Maila internazionalan lehen bake tratatu moderno da, aita santua negozioetatik guztiz kanpo uzten delako. Zentzu horretan bere bitartekari rola eduki zuena galdu egiten du. Bake tratatu honetan ez zen Europar egoera uztiz lausotu. Kontinente milan oraindik ezinegon nabaritzen zen eta potentzien arteko liskar hauek Atlantikoaren beste aldera hedatzen dira. Han jokatu da benetako partida inperioaren baliabideen ustiapena, eta Europako likrak ameriketara transferituko dira. Dena den., azken liskar horien konpobide modura: 1659ko Pirinioetako Bakea (Frantzia eta Monarkia Hispaniko)

Laburbilduz, espainiar inperioak bere arerioen mehatxu eta eraso gordinenak jaso zituen. Urte hauetan Amerikatik ekarritako zilarra asko jaitsi zen (pirateria dela medio). Honek monarkia osatzen duten beste leku batzuetatik baliabideak lortzera eraman zuen. Ondorioa: Kataluniako, Portugaleko eta beste leku askotako erreboltaak lirateke.

Ereforma, erlijioa eta prozesu honen garrantzia: erreformak gertatu eta gero Ingelesek eta Holandarrek ez daukate zertan Tordesillaseko tratatua errespetetu. Izan ere, ez diotelako Aita Santuari legitimitaterik ematen. Beraz, garai honetan gero ingelesak eta holandarrak hasiko dira amerikako guneetan instalatzen, inperioaren zatiak berengatuz. Hau legitimatuko du tratatuaren bidez espainiak beranduago.

Barnaldea eliteen, aristokraziaren eta elizaren etsaitasuna irabazi zuen, eta hasburgotarren gainbehera markatzen da.

# 2.GAIA: LERMA, OLIVARES, RICHELIEU, MAZARIN. BALIDOEN SISTEMA ETA BERE KRISIA

## BALIDOEN SISTEMA

Fenomeno hau garaiko Europan XVII.mendean (ca1560-1670 aldean), europa mailan nahiko orokortuta dago. Espainia, frantzia eta Ingalaterra. Europa mailan gutxi gorabehera finkatzen den fenomeno politikoa da. Fenomenoak lekuaren arabera izen ezberdinak hartzen ditu, baina ezaugarriak leku guztietan amankomunak dira:

- Pertsonai hauek erregearekiko hurbiltasun oso urkoa.
- Boterearen kontzentrazio itzela
- Testuinguruari dagokionez, beti ematen da sisteman erreforma nahiko erradikalak sartu behar direnean. Hots, sistema eraldatu behar denean, exigentzia berriei aurre egiteko, balioak agertzen dira. Zergatik? 30 urtetako gerra denboran balidoen fenomenoak gauzatzen da. Botere guztia bere esku, batzuetan erreforma oso inpopularrak burutu behar eta martxan jarri behar dira. Monarkia konposatua gabe eta oraindik etsai asko dauzka erregeak. Momentu jakin batean sistema ardatzen duen elementu hori (koroa eta erregea) babestu behar diera eta hor sartzen dira etsai hauek paper hori betetzera → figura hori babesteko balidoaren erantzukizunera joango dira gauza guztiak, eta balidoak klientel oso zabal dauka, erregearen gazekin aprobetxatu ahal da eta erregearentzat klientela leiala lortzen da.

Garaiko tratadistikak (trataduek idazten ziren lanek) balidoen inguruan goraipamena eta irainaren artean mugitzen dira. Kritika hauek bere testuinguruan kokatu:

- Gortean erregearen faborea lortzeko liskarretan. Horregatik arrunta izan zen XVII balidoen meditu bakarria zela erregearen lagun onenetako bat izatea.
- Beste kritika: erregearen borondate pertsonala guztiz ezabatzen zuten. Adb: ingalateran Francis Bacon (zientzia enpikoaren aitetako bat) idazle politikoa nabarmena. Tratadu bat dauka, "Anbizioari buruz" deitzen da.
- Defendatzen duena: faboritua guztiz beharrezkoa zela aristokrata anbiziosoak nolabait ekiditzeko. Erregea bere fabore guztiak balidoaren bidez bideratzen anbizioen ziur egongo zen inor ez zela balidoa baino gehiago izango, hortaz bere burua babesten zuten.

Fenomeno amankomun hau erabiltzen diren hitz desberdin horiek errealitate batera eramaten gaituzte.

“El privado” hitzak edo kontzeptuak eramaten gaitu erregearekiko edo sarbide pribilegiatu bat daukan pertsona batengana (erregearekin erlazo intimoa daukan pertsona)

“Favorito”gortean bizi diren pertsonen edo zerbitzarien artean erregearen gogokoena

Monarkarekiko urkotasunak beste elementu interegarri batera bidaltzen digu:

- Balidoak izango du gertatzen den guztiaren informazioa, erregari informatu beharrean balidoari informatzen zaio eta gero balidoak erregeai → horrela itzeleko boterea ematnez balidoari. Normalean sisteman erregeak dena jakin behar du baina “privado” bat egotean boterea handitzen du

- Goikoari oso lotuta, balidoak patronazgoaren monopolioa dute → baliabideak banatzeko boterea, alegia.

Gortea balidoen bizitzaren eta ekimenen erdigunea da, eta euren boteregune printzipala.

- Erdi aroaren amaierarantz aristokraten eta nobleen eta etxaldien arteko gerra zibila dago (bando gerra). Espainian xvi amaitzen dira. Zein da pazifikazio honetan gortek hartzen duen funtzioa? Lehen borroka feudalak zirenak orain gortearen barruan ematen diren borroka dira.

- Gortek balioak kontrolatzen ditu → aristokrata, burokratak, goi eliz gizonak, eta patronazgoaren bidez kontrolatzen ditu. Patronazgo honekin balidoaren helburua monarkia gobernatzea klientela berriarekin eta patronazgoaren bidez sortzen duena da fabore kate bat, eta horrela klientela sare bat sortuz patronazgo katea sortzen da → balidoari erresumaren leialtasuna ematen dio. Katea: aristokrata, herria, balidoa

- Jatorri sozialari dagokionez, aristokraziatik edo elizaren goi karguetatik datoz.

Gai honetan aditua den IAA Thompson historiagile Britainiarrak balidotzaren lau funtsezko ezaugarri jartzen ditu:

1. Balidoak botere esparru guztietan aditu ziren eta kontrolatu zituzten, bai esparru formalak (erakundeak → idazkaritzak, kontseiluak), baita esparru informaletan (patronazgoa eta klientelismoa) eta esparru hauetan ia ia monopolioa izan zuten beti.
2. Erakunde oztopatu egiten dutenean balidoak gaineratik pasatzen dira, ez ditu erakundeen beharra. Gaineratik pasatzen da edo beste bat sortzen du bere erreforma burutzeko.
3. Balidoak bere burua kokatzen du klientela sare erraldoi baten erdigunean, eta honek ahalbidetzen du erresuman integratzea.
4. Kontrakoa esan den arren, balidoak ez dira bakarrik botere zale amorratu batzuk, gobernu gizon ausartak izan ziren, helburu politikoak zituzten eta erreforma programak ere.



Balidoek erabili zuten artea eta kulturaren kodea euren boterea erakusteko. Adibidez, erretratuak: Baltasar karlos infantea da. EKitazio saio batean dago gorteko formak ikasteko. Erregeak balkoian daude baina benetan familiaren babesle moduan eta babestu moduan ere pertsona bat agertzen da (olivareseko konde-dukea). Erretratuen beti saiatuko dira errege-erreginen laguntasuna eta urkotasuna erakusten. Honek funtzio politikoa du.

Mezenasgoa: artearen alorrean ematen de patronazgo mota da. Erresumako eliteei balidotzaren berriak emate edo propaganda egitea zen hauen eginkizuna. Eurentako artisatxak letren munduan lagun urkoak edukitzea oso baliabide inportantea zen, etsaien aurka egiteko edo goraipamean goratzeko.

## LERMAREN BALIDOTZA

Balidotza austriar txikiekin hasten da → XVII. mendeakoa Felipe III, Felipe IV eta Carlos III. Monarkia Hispanikoa oraindik hegemonikoa da baina ahultasun sintoma larriak aurkezten zituen eta gainera bere etsaien botere metatze nabarmen batekin. Testuinguru honetan balidotzak balio du monarkiak dauzkan arazoei aurre egiteko.

Historiografiek uste du lehenengo benetako balidoa zela Lermako dukea → Francisco Gómez Sandoval y Rojas, 1553-1625. Aristokrata bat zen, "Grande de España" delako, erregearen familiako ia ia, eta oso txikitatik gorera lotuta bizi izan zen. Felipe II hiltzen da eta ordu batzuetara Lerma monarkiaren postu garrantzitsuenetariko batera izendatzen da: estatu kontseialri postua. Segidan goi erakunde guztiak bere klienteekin betetzen ditu, bizkor bizkor botere esarru guztiak kontrolatu zituen.

**-Zergatik hartzen dira aristokrata balido moduan?** sare erraldoi bat zutelako euren sostengu izateko, erlazio eta klientela ako dute, beraz botere bat dute atzetik.

Francisco Gómez Sandoval y Rojas 1598an Felipe III.aren laguntzaile urkoena bihurtzen da. Bere balimenduko bi ezaugarri nagusiak:

1. Pax Hispanica: Fr erresumarekin, inglaterra eta Herbeheretako erregearekin lortutako bake luzea, 20 urtetakoa.
2. Moriskoen kanporatzea 1609: bere ideia izan zen eta ejekuzioa ere. 250.000-350.000 moriko artean kanporatu ziren egungo espainiar. Garaiko europar intolerantza politika gailentzen zihoan.

Elementu negatibo moduan nepotismoa, korrupzioa eta guztiz bidegabeko aberastasuna leporatu zaio. Argi dago bere diru sarrera biderkatu zirela eta bere familiarentzako kargu garrantzitsuena erreserbatu zituen.

Aurreko erresumaldian inportanteak ziren gizon guztiak alde batera utzi zituen. Adb, ldiakaz gipuzkoarra eta bere klientela guztia.

Historia sozialetik → familia erregimen zaharrea kontzeptu zabala da, 4 ed 5. mailako lengusuak egungo lengusu urkoak dira. Koñatuak hermanos deitzen ziren. Amaginarrea ama.

Aberastaun honek eta postuak monopolizatzeko honek gortean bere kontrako fakzioa sortu zuen. Eta erregearen konfesionarioan ere bai (bere etsaiak lortzen dute bere konfesorea euren kausa hurbiltzea eta erregeak egunero konfesatzen zuen). Kritikak eta bere aurkako jarrerak asko hedatu zen eta 1618an bere gainbehera etorri zen.

## **OLIVARESEN BALIDOTZA (1622-1643)**

Larma eta hurrengo balio handia printzipio kardenalak, Europako balioari famatuena Olivareseko kondea . Bien artean, Lermaren balioa eta Olivareseko artean badago denbora tarte txiki baten eta garrantzi politiko handirik ez duen pertsona bat, Ucedako Kondea. Ucedako kondetan, Lermaren etsaia zen eta 1615etik aurrera gortekak presentatzen du Lermaren alternatibo bezala. Ez zuen Lermaren boterea eduki eta honek ondorio bat izan zuen, fakzio aristokratikoen gorteko, liskarrak eta gatazkak berriz ere berpiztea. Uceda eta gero beste balimentu gutxi bat agertuko da, Baltasar de Zuñiga, Olivareseko osaba izango dena. Denak daude gortean murgilduta, erregearen mesedea lortzeko, lista edo gatazka edo liskar bortitzena beti ez dena armekin konpontzen. Aristokraziaren eta nobleziaren Behe Erdi Aroko liskarrak gorteko gizartetik igarotzen dira. Hori da gortearen funtzioa.

Ucedako kondeak ez bezala Olivaresek badu proiektu politiko boteretsu bat, 1622an gailendu zen gorteko botere handienetara, nahiz eta, txikitatik biziko den gortean. Autore batzuek sailkatu dute bere pentsamoldea, arbitrismoaren barnean. Arbitreistak, garai hartan XVII. mendearen hasieran monarkiaren arazo politiko eta ekonomikoen aurrean erreformak proposatzen zituzten idazleak edo intelektualak ziren.

Testuinugu honetan edo molde honetan Olivareseko programa politiko berri bat proposatzen du monarkiarentzako eta horretarako lehengo egiten duen gauza, boterean dauden leinuak guztiz baztertzea izango da. Eta, goierakundeak, elizako postu garrantzitsuenak eta gortekoak ere bai, bere senidekoei emango die, bere burua babesteko. Bere oinarritzko ideia monarkiaren prestijioa berriz ere berreskuratzea eta Habsburgotarrekin lotura estutzea da. Hau lortzeko, bideak edo tresnak honakok izan behar ziren:

1. Erresuma guztiak ogasun eta zerga sistema bakar bat ezartzea.
2. Demografia hobetzea .
3. Manufakturak suspertu, gaurko Espainian, garaiko penintsulako monarkiaren domeinuetan, oso gutxi egiten ziren manufakturak, industria oso gutxi garatua zegoen, nekazaritza egitura bat zuen, industria, Bizkaia, Gipuzkoa eta Katalunian

kokatzen zen. Manufakturak ez izatearen ondorioz, Amerikatik zetorren zilarra ateratzea ekartzen zuen.

4. Noblezia eraldatzea. Goi aristokrazio boteretsu batetik, bere botere propioa zuena, noblezia transformatu behar zen, noblezia zerbitzari, administrazio batean. Erregearen zerbitzura jartzen zen noblezia baten.

Hau guztia burutzeko sistema berri bat topatu zuen, ezaugarri komunak zituen → komisioko funtzionalak. Kontseiluek erresuma ordezkatzeko dute eta beti ez daude erregeak nahi dutenarekin ados. Olivaresek asmatuko duena da bere konfiantza oso pertsonen osatuko duten komisioko bat.

1624ko memorial handia, (unión de armas) → erregearentzako instrukzio sekretu bat. Oinarritzen da printzipioa → multa regna, sed una lex erresuma asko lege bakar baten menpean (monarkia konposatuaren aurkako atake frontala).

Olivaresek uste zuen Gaztelak gerran edo gerra gastuetan parte oso handia hartzen zuela, zergen eta gizonen bidez eta forudun lurraldeek eta pribilegioak zituztenen ez zutela batere hartzen (Bizkaitarrak adibidez). Pentsaera honekin Olivareseko proiektua lege guztia Gaztelakora asimilatzea gutxinaka gutxinaka eta berak monarkia barnean zegoen desoreka zena, hori nolabait zuzentzea nahi zuen.

Lurralde bakoitzak bazituen bere postuak, errentak eta abar, naturari erreserbatuak. Olivaresek beren zergak, gizonak ematea proposatzen zuen eta Gaztelaren eta Ameriketara libreki joan ahalko zirela esaten zuen. Horrez gain, estamentu pribilegiatuen gaineko gogoeta bat ere egin zuen proiektu hauetan. Batez ere, nobleziaren ingurua: berak pentsatzen zuen erregeak goi aristokrazia baztertu egin behar zuela, arriskutsuak zirelako eta askotan edo beti matxinada handiak atzean zeudelako konspiratzen eta bere laguntzaileak behe noblezia bere kargetan hartu behar zituela.

Oso lotuta dauden dokumentu eta proiektu hauetan azaltzen zena, sistema tradizionalen foruak guztiz kontra egin zutela eta arazo itzela sortu zitzaioela da. Honek itzelezko arazoa sortzen du, 1640 hamarkadan krisi territorial itzela sortuko da (Katalunian, Portugalen eta Andaluzian). 30 urteko gerratean Frantzia sartzen da gerran 1635ean, hau gehitzen zaio edo dator gutxi gorabehera union de armas proiektuak, sortzen duen errefuxatik. Hor testuinguratzen da 1640ko ekainaren 7an, Bartzelonako matxinada handia, batez ere Bartzelonana bizi ziren gaztelaren eta funtzionarioen aurka. Matxinadaren arrakastarako faktore garrantzitsu bat dago: hasiera batean Kataluniako elite bat, beldurto egingo da matxinada bortitza batean gertatze den bezala, Baina bigarren fase batean, matxinadara deitu zituzten. Momentu honetan bihurtzen da matxinada edo errebolta hau gauza garrantzitsu batean, errege erreprimatu ezin den errebolta batean. Kataluniako errebolta hori eta gero, Frantziara batze horrek ez zuen arrakasta handirik eduki, pentsatzen

zutenaren aurka, Frantziar dinastiak ere ez zituelako Katalanen pribilegio eta eskubideak errespetatu eta horregatik, Olivarez sendu zenean 1652an bueltatu ziren lehengo egoerara.

Katalunia ez da kasu bakarra, Portugalek ere testuinugu berdina izan zuen. Portugalen ez zen inoiz oso ondo onartu Austrien erregetza, Felipe II.aren erresuma, sentimendu edo joera Gaztelauen aurkako joerak oso ondo dokumentatua daude, baina Olivaresek sartu nahi zituen erreforma eta eraldaketak, sentimendu hori hareagotu egingo dute. Proposamen edo proiektu batera, eskakizun fiskal eta militarrek, ez zuten inolaz ere kontsentsua edo adostasuna lortu portugaldarren artean. Testuinguru honetan eta erregearen tropak Katalunian zeudela aprobetxatuz, Portugaldar eliteen fakzio bat altsatu egiten da eta Braganzako dukea aukeratzen dute errege, 1640an.

Andaluzia ez dugu sarritan horrelako errebolta handietan ikusten, nahiz eta 1650ean, hemen ere aristokraziako kide garrantzitsuek, Austria txikien inperioa kolokan jartzea lortu zuten. Hemen sarritan uztartu ziren familia liskarrak: altxatzen den lehengoa Medina Sidoniako dukea, Olivaresen leinu berekoa baina bere kontra egingo duena. Medina Sidonia zegoen une berean, Olivaresekin lotura zituen, baita Braganzako dukeekin ere, hortaz, Portugalen gertatutako gertakariak bere leialtasuna erakutsiko dute.

Gertakari multzo honetan badago, koherentzia elementu bat edo fattore amankomun bat. Monarkiaren desagitea, bere prestigio globalaren gainbehera, krisi ekonomikoa eta batez ere politikoki tradizioa eta berrikuntzen arteko tentsioa. Faktore multzo honek ematen dio koherentzia bat gertakizun sorta honi. Testuinguru oso latz honek, Olivaresen boterea kolokan jarri zuen goi klerotik, goi aristokraziatik, gortetik, leku guztietatik aurkakotasuna azaldu zitzaion eta hau, 30 urteetako gerratearen testuinguruan jasotako porrot militarrei gehitua Olivaresen 1643an kargu gabetzea ekarriko du.

### **LUIS MENDEZ DE HARO (1643-1661)**

Olivaresen iloba izango da, horrek gortean hainbat ekintza gauzatzeko aukera ekarri zuen. Bere erronken artean:

- Krisi territoriala konpontzea
- 30 urtetako gerratea beingoz modu duin batean amaitzea.

Bina bere osabari gertatu zitzaion bezala ezin izan zuen erresumaren egoera ekonomikoa kaskarra hobetu. Data hau eta gero, Luis Mendez de Haro eta gero, baliotza historikoa bukatutzat ematen da Godoy-ra arte.

### **BALIDOTZA FRANTZIAN**

Kronologikoki: 1610 lehenengo erregeordetzatik - Luis XIII

Erresuma denbora artan, desoreka eta barne tentsioetan guztiz murgilduta. Erljio gerrek sortutako gorrotoak, goi aristokraziaren botere itzela, estamentuen erresuma osatzen

zuten, estamentu ezberdinen akordio falta, hau da, kleroa, noblezia eta hirugarren estatuaren arteko akordio falta eta koroaren guztizko autoritate eza. Oraindik absolutismotik oso oso aldenduta gaude.

Frantziak, adibidez, ez dauka nola bere bortizkeria bere erresumatik ateratzeko aukera; Monarkia Hispanikoak badauka Ameriketara eta Europako beste hainbat gunetara ateratzeko aukera. Horregatik gertatzen dira gatazka guztik erresuma barnean eta barne egoera oso oso larria izango da. Estamenduen arteko akordio eza horrek eramango zuen estatu generalak, erresumako organo tradizionalak azken adiz 1614an konbokatzerara.

### **Concino Concini**

Historiorafian lehenengo *favorito* edo *pribatu* moduan sailkatzen du Concino Concini. Italiarra zen, Frantziako gortean zegoena kasualitateaz, bere emaztea zelako norbaiten zerbitzaria. Oso jatorri umileko tipo bat zen eta antza denez, Enrike IV. hil zenean bere ondasun materiala leta bere familiaena oso urria zen baina segiduan lortu zuen itzelezko aberastasuna, erreginareen konfintzari esker. Karguak eta tituluak barra barra lortu zituen berarentzat eta bere ingurukoentzat. Politikoki Concinoren balioak ez du interes handirik. Lortu zuen, errebolta aristokratiko baten bat lausotzea, baina bere meritu handiena izan zen errege ordean, hau da, erregearen, konfiantza izatea. Bere merituak eta ahultasun handiena ere izan zen. Azkenean, Luis XIII.a tronura heldu zenean guztiz baztertu zuen eta aristokrata ez zenez bere gainbehera ekarri zuen. Erregearen onespenearekin eta bere emaztea sorginkeriaz leporatuta, grebaren plaza delakoan exekutatua izan zen, aldeztatik aurretik bere jabego guztiak konfiskatuz.

### **Richelieu kardenala**

Concinok ez bezala, bigarren interes politiko oso handia du, Richelieu kardenalak, honekin bere ikasketan, Nafarroko eskola akademian Parisen egin zituzten (humanitatea, gramatika, filosofia eta adar horretako ezagutzak biltzen zituen diziplina sorta), Parisen bazegoen oso ikastetxe famatu bat, Napartarren ikastetxea deitua. Gero Klubineleko akademiara pasatu zen, akademia honek Frantziako formatzen ziren gortean biziko ziren gizonak. Hau zen, beren patua, baina 21 urterekin egiten dute apezpiku, bere familiak tradizionalki okupatu zuen Lucon-eko obispadoa. Lucon-en apezpiku moduan gobernu ekintza oso zorrotzak eraman zituen aurrera Trentoko kontzilioak finkatuz eta martxan jarri eta garai hartan Lucon-eko gobernuak gortearen atentzioa deitzen du. Apezpikua zen baina noizean behin gortetik pasatuko da. Horren bitartean famatua egingo da, gobernatzeko gaitasun itzelaren ondorioz. Gainera, Lucon-en bertan antzematen du frantziar erresumak duen arazo funtsezko eta fundamentalak koroaren autoritate ezetik, ez duelako bere autoritatea inposatzeko ideiarik. Elementu hauek oinarri bezala hartuta, bere aburuz, erresumako talde guztiak herri xehea (gorroto zuen), kleroa eta noblezia jarri behar dira beraien zerbitzura, guztiak jarri behar dira jaungoikoaren eta koroaren zerbitzura, Ideia honekin lotuta, bigarren mailako funtzio bat esleitu zitzaion. Koroa handitzen joan behar da.

Bigarren ideak guztia eraldatuko du; denbora guztia iraultzailea izango da, bere ustez erregeak jaungoikoaren aurrean du soilik erantzukizuna, hau da, monarkia konposatua eta tradizionala guztiz apurtzen duen ideia. Erregeak boterea jaso du, jaungoikotik eta patu baten bitartez herriak eman dio erregea. Zuzen-zuzenaren erregean bere boterea jaungoitik hartuko du, inori erantzuna eman behar gabe. Momentu hortatik aurrera konstituzionalki Luis XIV. are oinarriak jarrita daude. Praktikan ideal guzti hauek. zertan gauzatzen dira, erreformetan, eliza estatua hobeto kontrolatzeko erreforman, noblezia zerbitzua egiteko erreforman, zerga gehiago eta errazago biltzeko erreforman eta abar. Beste gauza batzuen artean Habsburgotarren aurka egiteko behar ziren diru sarrerek erreformak beharko dituzte eta berak burutuko ditu.

Beste elementu interesgarri bat; bere modernitatearen ikur diernak, propoaganda eta manipulazio politikoaren maisu bat izango da. Bere klientelaren bidez kontrolatzen ditu, erresumatik dabiltzan panfletoak ikuskatu edo bigilatzea eta batez ere berari eta gorteri buruzkoak badira. Honez gain, bere sekretuetatik, panfletoak bultzatu eta idatzi zituen bere pertsonaren gorapamena bultzatzen zuten panfletoak.

Frantziako lehenengo egunkaria sortu zuen, (Gazeta), horren bidez probintzietara eramaten zuen gorteetan gertatzen zena. Berak sortu zuen ere, frantsez hizkuntzaren erret akademia. Eta bertan jarri zituen bere klientelako kideak, helburu argi batekin, kultura ahalik eta gehien kontrolatzea. Hauen bidez, akademia osatzen zutenen bidez, zer idazten zen, nola idazten zen kontrolatzeko helburuarekin.

Laburbiltzen, bere politikaren bi ardatzak, izan ziren:

1. Boterea erregean zentralizatzea. Aristokraten gotorlekuen suntsiketa burutu zuen.
2. Habsburgotarren aurka egitea.

### **Jules Mazarin**

Italiarrek Frantziaren alde egin zuten. Beti azaldu izan zuen Luis XIII.aren gortearenganako eskukatu gabeko sinpatia. Parisera 1631an helduko da, munizio bat moduan (Aita Santuaren agente diplomatiko bat, beste herrialde bateara bidaltzen dena). Bere boterearen gailurrera iritsiko da Luis XIII hiltzen denean. Ana de Austriaren denboran.

Denbora honetan botere baten egitura ahultzen da eta antzinako konfliktuak azalarazi egiten dira, berriro heldu ziren aristokraten konspirazio eta gatazka latz eta bortizetara.

30 urtetako gerratean eta Westfaliako bakea lortzean, arrakasta guztiz zapuztua → gerraren kostuagatik. Kostu altu honek, behartu zion guztiz inpopularra ziren neurri fiskalak hartzen, eta hau bere neurritz kanpoko aberastasunarekin batera, beren kontrako senitenduaren sortze baten oinarrian egon zen → ikur nagusia: fronda delakoa, 1648tik 53ra. Fronda: koroaren zentralizazioaren aurkako elementuen bilkura (parlamentua, herri xumea).

Matxinada baretuta, bigarren fase bat hasi zen: 1650ean, Aristokraten Fronda: erresumako printzipe eta goi nobleziaren erregearen kontrako altxamendu bortitza. Hau da matxinaren denboraldian gertatzen den gertakaririk garrantzitsua.

Laburbiltzeko, sistemaren krisiari buruz:

-Historiografian akordio orokor bat dago balidoen sistemaren jaiotza azaltzerakoan → erreforma sakonak sartzeko momentuan agertzen direla balidoak. Haien ekarpenen amankomunak:

-Erregetzaren (koroaren) gailentzea,

-Gortean botere sistema zentralizatzea,

-Erakunde tradizionalen boterea alderatzea edo gutxitzea.

-Euren desagertzearen inguruan akordio bat dago: behin monarkiek bete behar zituzten helburuak beteta, balidoen sistema edo misioa jada beteta zegoela. Hots, puntu batetik aurrera ez ziren erabilgarriak. Balidoei esker sortutako sistemarekin erregeak eta bere eliteek zuzenean agintzeko/gobernatzeko boterea lortu zuten → klientela sare erraldoi bat sortuz. Helburua arrakasta sortu zuten, modernizazio eta erreforma prozesu honek sortutako gorrotoa eta herriaren zein eliteen aurkakotasuna, balidoek jaso zuten. Erregea horrela salbu geratu zen irain, gorroto eta kritika guztietatik. Hortik, ondorioztatuz, XVII. mendearen bigarren erdialdetik aurrera balidorik ez egotea.

# 3.GAIA: INAUTERIAREN KULTURA.

## KULTURA HERRIKOIA ARO BERRIKO

### EUROPA ZAHARREAN

#### 3.1 KULTURA POPULARRA XV-XVI. MENDEETAN. SARRERA OROKORRA.

Orain arte elite alfabetizatuak protagonizatutako prozesuak ikusi ditugu. Monarkien eta entitate politiko handi horien biztanleriaren gehiengoari eragina egiten diola egia da, baina prozesu honen historia biztanleriaren gehiengo hori orokorrean kanpoan uzten duela, gehiengo anonimo horren historia baztertzeko duela.

Estatu absolutistaren historia izan zen luzaro egin ahal zen historia bakarra eta horrek gaur arte dirau. Joera honen aurrean, jada 1966an Goubert izeneko historiagile batek liburu bat idatzi zuen “Luis XIV.a eta 20000 frantziar”, aldarrikatuz estatuaren eta monarkiaren historiari aparte miloika pertsona historiarik ez zutela aldarrikatuz, honekin jende anonimoaren existitzen zen joera bat bultzada emanaz eta hurrengo urteetan historiografia bikain batek jarraipena emango dio. Ezagutu behar ditugun izen batzuk: Natalie Zemon Davis, Carlo Ginzburg → antropologia historikoa fundatu edo hasi zutenak.

Kultura herrikoien historia egiteak zailtasun propioak ditu:

- Nola klasifikatu ditzakegu kultura horren barne dauden pertsonak, nortzuk dauden eliteen kulturaren barruan eta nortzuk kultura herrikoien barruan. Luzaro pentsatu izan da letra gabeko sektoreak (garaian %90 baino gehiago) herri xumearen kultura popularrean sailkatu behar zirela, baina gaurko akordio historiografikoak dio: alfabetizatuak edo ez Aro Berriko gehiengoak kultura popularrean sailkatu behar dela eta ez eliteen kulturaren.

SARRERA:

Orokorrean, kultura herrikoiak funtsezko ezaugarri bi ditu:

1. Iraunkortasuna, aldaketa historikoen aurrean herri xumearen kultura ezaugarritzen duen elementua iraunkortasuna edo permanentzia da. Beste era batera: kultura honetan jakituriaren iturri nagusia izango litzateke belaunaldiz-belaunaldi familietan eta komunitateetan trasmittutako idea multzoa, baloreak eta jakituria. Honekin lotuta, ezagutzaren oinarri fundamentalak ez dator liburuetatik edo bakarrik zeharka dator liburuetatik baina ezagutzaren iturri nagusia naturaren obserbazio milenarioa/zikloak izango litzateke.
2. Ahozotasuna, kultura guzti hau ahoz transmititzen da. Ahoz transmititzen bada nola ezagutu dezakegu? Eliteek emandako kontakizunek, gero historialarien lana da kontakizun hauek fidela edo zer gehitua izan zen. Baina beti egongo da,



bitarteko bat eta bitarteko horrek bere kultura propioaren elementuak sartzen ditu. Konparaketa antropologikoa ere erabiltzen da, beste interpretazio batzuetara helduz.

Ideia edo TESI ZENTRAL BAT dago, honen inguruan ardaztuz gai guztia: Koroa (mendeak beranduago estatua izango dena) gailentzen doan heinean, kultura popularren errepresio gogor bat burutu zuen elizekin batera konfesionalizazioa moduan deskribatu dugun fenomenoa. Errepresio hau nahiko arrakastatsua izan zen → ia-ia guztiz ezabatu zuen, ez bakarrik kultura popularra, baita honen memoria ere bai. Estatuaren kontakizuna edo teleologia inposatuz. Prozesu horretan kultura popularraren erredezioa egiten dute.

Iraultza kulturala edo estatuarena → bere existentzia guztiz naturala dela beren idea inposatu dutelako. Gu honetaz ez gara konturatzen, baina guk sinisten dugu estatu egiturak naturalak direla eta hor egon behar direla naturalak direlako.

Koroak eta botere erlijiosoak inposatu arte (XVIII. arte ez da gertatuko) kultura herrikoi sendo baten existentzia posible izan zen. Kultura popular hau, ez da bakarrik existitzen, funtzio bat du:

- Estatu sendo baten falta edo egitura politiko sendo baten faltan komunitateari segurtasuna ematea eta babestea.
- Pertsona bakoitzari munduaren azalpen koherente bat transmititzea.
- Komunitatearen kohesioa bermatzea (estatua gailenduata ez dauden tokietan, komunitateak beraien artean lotuagoak daude, batak besteari segurtasuna ematen diotela. Familiak garrantzi handiagoa zuen egun baino. “Gure kasuan estatuak gailetasuna du, beraz babesa eta segurtasuna ematen digu”).

XV-XVI-XVII. mendeko gizarte hauek:

- Ez daukate naturaren azalpen zientifiko bat. Naturaren menpe bizi dira, honek segurtasun eza suposatzen du (adibidez, fisikoa: gosea, hotza, gabezia fisikoak...). Nekazal eremuetan bizi diren materiala oso ezegonkorra zen. Esanguratsua da garai hartan zegoen otoitzik famaueta “Azkar gaitzazu jaungoikoa gosetik, guatik eta izurritetik”. Egoera materiala zerealen ekoizpenean oinarritzen zen. Ondorioz nekazal komunitatea beti dago gorabehera klimatikoen mehatxupean. Eta beste alde batetik demografiaren, hau da, existitzen diren pertsona kopuruaren menpe dago (egoera klimatikoa, uzta eta demografia).
- Honez gain, nekazaritzaren ezaugarri nagusia XVII-XVIII. mendera arte (kasuak kasu) geldialdi teknologikoa izan zen; hau da, ezin zutela produktibitatea handitu. Faktore hauen ondorioz, nekazaritzari guztiz lotuta dagoen biztanleriaren %90a eta benetan bizi da subalimentazioren mugan, are gehiago kontutan hartuta errentaren parte batek bere eskuetatik ihes egiten zuela: gaizki elikatuta garaiko European zegoen gizadiak desnutrizioak, tuberkulosia, deformatutako gorputzak,

hagin gabeko agureak eta beste batzuek osatzen zuten. Gainera, kasi beti higiene izpirik gabeko pertsonak ziren.

- Gosea da garaiko obsesioa, gosea saihesteko eremu katolikoetan nekazariak urtean zehar 153 egun dauzkate, zeinetan barau egiten duten (ia janik ez, ayuno) eta hau garizuma kenduta (beste 40 egun) guztira urtearen erdia pasatzen du ia jan gabe (193 egun guztira). Barau denboraldi hauek uztartzen dira sabelkeria itzelak egiten diren jai erraldoietan: adibidez ezkontza, bankete itzelak, hiletak... eliza autoritateek askotan debekatu behar zituzten halako jaiak, adibidez hiletetan asko mozkortzen zirelako.



Bestalde, historiagileek ongi ezagutzen dute garaiko negu bortitzen aurkako babesaren urritasuna. Aro berria izan ere, ezagutzen da “Hotzate txikiaren aroa” (La pequeña Edad del Hielo), XIV-XIX bitartean. Ez da askotan identifikatzen dugun glaziazioa, baizik eta oso negu bortitzak eta uda zein udaberrik hotzak dauden denboraldi luzeak. Kausak ez daude argi oraidik, baina ideia hori da. Garaiko koadroetan ikusi dezakgu nola gaur egun inola ere gertatzen ez den lekuetan izoztu egiten ziren.



Famili txiroek, denbora hartan askotan beroa bilatzen edo beroa lortzeko guztiek batera lo egiten zuten, batzuetna ohe berdinean, honek bazeukan oso tristeia den ondorioak, batzuetan itota edota zalpuak izanaren ondorioz umeak hil egiten ziren. Era berean, hondamendi naturalen atalean sar ditzakegu guretzeko egun oso garrantzitusak ez diren

gauzak baina garaian guzitz funtsezkoak zirenak, adb: uzta txar bat, desoreka klimatikoak dauden denbora batek ez dio faborerik egiten nekazaritzatik bizi den komunitate bati.

Imagina dezagun uzta txarren segida bat ematen dela, honek suposatzen du elikagai erreserben urritasun bat emango dela. Eta zerealen prezioak % 300-%400 igoko dela bizkor. Honen ondorioa da sektore askok ezingo dutela erosi eta gaixotuko direla edo hilko direla.

Honen harira, mortatilate krisiak oso arruntak izango dira. Bizitza nahiko miserablea zen.

-XVI. menderako kalkulatu izan da jaiotzean bizi-itxaropena 20 bat urtekoa zela, batez beste. 20 urtetatik pasatzen den nekazari batek lortuko du 40 urterara heltzea baina jaitozen diren umeen erdiak ez dira inoiz helduak izango.

-Emakumeentzako, higie gabe eta inolako berme zientifiko gabeko erditze oso segidakoe, infekzio eta gaixotasunak ekartzen zituen. Alargunak gizon eta emakumeak oso arruntak ziren, baita birritan ezkonduak gizon-emakumeak ere.

Izurrite epidemiak gehitu behar ditugu egoera honi. Yersinia Pestis baziloak (patogeno) sortutako izurriteak izan ziren industria aurreko Europan sarraski handienak egin zituenak (betiko izurrite beltza). Inperio mongolaren gorakadaren ondorioz iritsi zen Europara, arratoiek eramaten zuten patogenoa. Inperio mongoloak zetaren beste bide bat sortu zuen, elkartruke oso inportanteak sortuz, Himalaya inguruan patogenoak ez zuen eraginik, baina Europara iristerakoan Europaren herena eta 2 herenen artean hil egin ziren, eta denbora hartan nahiko jende gutxi bizi izan zen. Izurritek XVIII. mendera arte izurriteak bueltatzen ziren etengabe.



Gaixotasun hauen aurrean ez zegoen erremediorik, XV. mendearen eta hurrengo mendeetako klase popularrek hiri eta herrixketan amorrutako jainkotiarra baretzeko eta gelditzeko prozesioak eta Santuei bideratutako erreguak egiten zituzten. (Hortik dator Euskal Herriko hainbat herrietako izenak: San Roque eta horrelakoak, izurritearen aurkako Santuak). Izurritea borrokatzen zuten berrogeialdi sistematikoarekin (egun moduan).

Hotzak, goseak edo gaixotasunak sortutako segurtasun eza fisikoa izan daiteke baina beldur psikologikoak ere sortzen ditu, errealak ez direnak, alegia. Beldurraren jatorria egon daiteke:

- Animalien erresuman: otsoarekiko beldurra komuniari hauek itzela zen, urtean zehar hotz handia egiten baitzuen eta ohikoa zen otso batek erasotu eta hiltzea. Gainera otsoek edo zakurren amorrua (rabia) transmititzen zuten, eta garai hartan amorruak ez dauka konponbide zientifikorik. Amorrua zuen pertsona familiarrek almuada batekin hil egiten zuten.
- “Aberats bat infernurako bidean”.



Sarritan hondamendi klimatikoak, haize boladak, txingorra, elurra, uholdeak eta abar, armonia natural baten sartutako haustura sakon bat bezala ikusten ditu. Mundua jaungoikoak sortu du eta beraz armonikoa izan behar da, zerbaitek armonia hori apurtzen badu, gaizkiaren edo txarraren, edo deabeuaren akzio edo inbertentzio gisa hartuko da.

- Uztak suntsitzea eta animaliak zein abereak hiltzea → sorginen akusazioa

Arimek eta espirituak ere badute gure mundu honetan eguneroko presentzia bat, mundu sakralizatu batean gaude eta gaizkiaren aurka otoitzak, bedeinkapenak, erreguak, prozesioak eta abar egitea gauza arrunta zen.

Laburbilduz, mundu fisikoa kontrolatzeko gaitasun ezak pertsonak beldurrez inguratzen ditu eta honen aurrean naturaz gaindiko indarretara jotzen dute komunitate hauek.

Beste ezaugarri bat:

Gutziz bortitza den mundu baten gaude, heriotza leku guztietan dago, bizitzak ez dauka balio handik, Michael Wolgemur “dantza makabroa” (1493) (eskeleto bat eta bi pertsona bizirik zeudenak dialogo batean heitortzan abixatu egiten die bizirik daudeneri laster datorrela, mundu eta bizitza horrek ez duela asko balio). Heriotzaren presentzia edo lekukotasun zabal honek, sortzen zuen makabroa zen guztiarekiko horrelako gustu partikular bat. Adibidez exekuzio publikoak → espektakulu itzelak ziren.

Kriminalitateari buruz egineko azterketa historikoek erakusten dute datuekin gurea baino askoz gizarte bortitzagoa zela hura. Eta bortizkeria hori komunitatean geratzen zela gauza bat gertatzen ez bazen, hau da komunitatean gertatzen zen bertatik kanpo ez bazen joaten: sorginak eta juduak adibidez. Bortizkeria hori komunitatean geratzen ez bada beste elementu batera zuzentzen.

Denbora honetan ezin dezakegu esan estatu modernoa eratuta dagoenik, gutxienez XVIII. mendera arte. Honen ondorioa da, koroa ezin dela erresumako bazter guztiera iritsi. Dazkan agenteak (administratibo edo militarrik) oraindik oso gutxi dira eta hortaz aparatu edo botere politikoaren presentzia erresumako eremu zabaletara ez da iristen. Botere politiko horrek ezin du inola ere bermatu nekazal komunitateen segurtasuna, honen aurrean, hala ere, komunitateak badauzka bere mekanismo propioak (eta faktore honetan oinarritzen da kultura popularra):

1. Erlazio sozialen dentsitate handia.

Hasteko, familia loturen dentsitatea. Hemen bilatuko du pertsonak (existitzen ez den) estatuak eskeini ezin duen babesa. Familia da garai hartan lehen mailako solidaritate edo elkartasun esparrua. Era berean familia da ekoizpen eta kontsumo unitate bat. Baina, ez da beti familia barena maitasuna erakustea, sentimenduz uztutako esparru sozial bat zen askotan. Ez dute guk daukagun familiaren ideiarik. Familia kideen arteko elkartruke edo zerbitzu mota bat da. Familia da mundu honetan pertsona, indibiduoak komunitatean errotzen dituen eta bakoitzari bere estatusa ematen dion instituzio edo erakunde soziala da. Mundu honetan ahaidetasuna gaur eguneko baino errealitate askoz zabalago bat konprenditzen du; adibidez, normala zen bostagarren graduko birraitona berdina zeuzka lehengusu bat anai gisa tratatzea. Erabiltzen dituzten hitzak familia kidea definitzeko ezberdinak dira. Paralelismo bat egin beharko bagenu egungo ijitoak izango dira. Odol loturetatik kanpo lotura espirituala existitzen da; hau da, fikziozko familia, hendogamia ekiditzeko helburuarekin.

2. Beste lotura sozial oso garrantzitsua → auzotasuna, hau da, auzokideak diren artean hor ere elkartasun sendo eta indartsua sortzen da, batzuen beharra dutelako beti. Testuinuguru honetan hartzen du garrantzia auzolanak, eta egun ez du indarrik.



Bruegel Zaharra, Nekazarien ezkontza (1566-1599)

Laburbilduz, pertsonak edo indibiduoak zentzu honetan ez direnak existitzen senide lagun eta auzokideen hainbat zirkuluz ingurtatzen dituzten beraien buruak, estatu sendo baten existentzia ordezkatzeko dutenak. Hemen ez dago indibidualista izateko posibilitaterik,

denek dute besteen beharra gauza guztietarako. Benetako pobrezia Erregimen Zaharrean, ez da pobrezia materiala, benetako pobrezia lotura sozialen eza baizik. Txiroak leku bateik beste joaten direnean, lotura soziala galdu dutelako da, egun bezala.

Isolamanedutik ihes egitea obsezioa. Politikoki komunitate hauek beraien burua gobernatzeko autonomia oso zabala daukate. Oso autonomoak diren komunitateak dira, batez ere nekazal edo landa eremuetan etxeko jaun eta leku batzuetan etxekoa andereen bileren bidez gobernatzen da komunitatea (kanpoko agente/administratzailearen inolako interbentziorik gabe).

Guzti honekin lotuta argi eduki behar dugu gaia oso orokorra dela, monarkiak eta estatuak formakuntza prozesu oso primitiboan daudela, horregatik ezin dugu Europako kultura herrikoi konkretu bati buruz. Kultura herrikoi honetan ezaugarri orokorrak daude, baina betiere ezaugarri erregional konkretuak ere baditugu. Ezin dugu unifikazio batez hitz egin (ohiturak, hizkuntza...). Jende honek ez dauka mobilitate handirik, bere komarkatik kanpo ez die interesa sortzen, ez baitira beraien herrietatik aterako.

Elite kulturalan, aldiz, hau ez da gertatzen; Europa mailan euron arteko komunikazioa badagoelako, ezaugarri amankomunak sortuz.

### **3.2 JOERA ETA KULTURA HERRIKOIAK LANDA EREMUAN (XV/XVI).**

Landa eremuko ezaugarrietako bat da gauzak ez diela azkar aldatzen, orduan bertako kulturek azko iruango dute. Historialariek bi ardatz hartzen dituzte: espazioa eta denbora. **Denbora** linealak jatorri bikoitza du: batetik, ilustraziotik dator, progresuaren ideia dago; bestetik, jatorri kristaua du, kristo agertzen denetik hasten da denbora kontatzen eta honek gure denbora lineal eta progresista izatean eragina du. Nekazariak denboraren ulerkera birakorra dute, hau da, ziklikoa. Ziklo agrikola horren garapena: historialari batzuek historitate erregimen desberdina izatea deitzen diote honi. **Espazioari** dagokionez, ikerketek erakusten dute landa eremuan hendogamia oso altua zela. Hau ezaugarri funtsezko bat da, batez ere herrixketan. Nolabait esateko, mundu honetan denak dira familia berekoak. Gizarte hierarkiak gora egin ahala, senarra edo emaztea hurrunago bilatzen da.

Herriarentzako euren kultura edo batez ere eskualdeko kultura da. Eskualdetik kanpo hasten dira munduko arrixkuak, erlazioa sare sozialetik gero eta hurrunago zeudenean beraien babesa ziren parienteak gero eta hurrunago desagertzen direlako eta horrek arrixku eta beldur sentipenak areagotu egiten ditu.

Denborari dagokionez, nekazariak landa eremuan, erlojuaren faltan, euren denbora neurtzeko beste elementu batzuk erabiltzen zituztela esan dezakegu, adibidez, fenomeno

naturalak: txorien hegaldiak, eguzkiaren pozizioa... Erlojuen instalazioa logika kapitalistak inplantatutako bizi herrikoia den denbora da.

**-Nola ulertzen dute orduan denbora?** Neguro hil egiten den eta udaberrian piztu egiten den naturaren espektakuluak edo zikloak, biztanleria eredu tenporal batean kokatzen du. Iragina, etorkizuna eta oraina beti dira berdinak, hau da, itxaroten dena batez ere ziklo natural berbera izatea eta egoera materiala ez kaxkartzea. Horiek dira gehiengoaren espektatibak denborari dagokionez.

-Garaiko jende egutegia: gehiengoarentzako guztiz kristaua ematen du; izan ere badauzka elementu kristauak baina ez guztiz. Egutegi kristau hau egutegi pagano bati lotzen zaio, superstizioz beteriko egutegia. Alde batetik, egutegi kristaueko festa batzuk ditugu: garizuma, Aste Santua, paskua asuncion, gabonak... Bestalde egutegi paganoko festak ditugu: garizuma aurretik inauteriak, gero maiatzeko festak, ondoren sanjuan sua, Domus Santulu (todos los santos) eta gabon aldian 12 egunen zikloa deitzen zena, neguko solstizioa. Orduan sinkretismo nahiko armonikoa ikusten dugu, sineskera desberdinen batzea.

Ozpakizun hauek ardatz moduan hartuta garaiko nekazariak urtea bi momentu motatan banatzen zuten: alde batetik aktibitatearen denbora, hemen egongo da maiatza, sanjuan, jasokundea (asuncion), ziklo honetan ereitea eta usta egiten dira; bestalde, aktibitatearena amaitzen denean, nekazal erritmoaren moteltzea etorriko da, eta hemen domus santulu, gabonak eta inauteriak egongo dira eta zikloa udaberrian amaituko da eta beste zikloa pasko denborarekin hasiko da berriro. Pasko aldia eta gero, maiatzeko festetetan gazteek emankortasuna edo fertilitatea ozpatzen dituzte, eskongabe dauden nesken etxe aurrean arbola bat landatuz. San Juan denboran, dantzak eta ozpakizunak egiten dituzte bi helbururekin: komunitateko auzokideek aktibitatea hasiko den denboran, hau da ereitea eta uzta, heuren harteko harremanak estutzea; bestalde, zelaietatik espiritu txarrak uxatzea sanjuanetako su purifikatzailearekin. Jaskundeari dagokionez, leku askotan usta iada bukatu denean askotan sexuz, lizentziaz eta mozor haundiz ozpatutako jaia izaten zen. Domu Santulu, badauka izaera edo izen kristau bat baina izan ere benetan argi eta garbi dagoen kutsu animista bat dauka, hau da mundu honetakoek hildako munduarekin bat egiten duten edo gurtzen dituzten eguna izanik, kultura animista bat da. Kultura animistak dira uste dutenak hildakoek gure munduan gauzak egin ditzazketela pentsatzen dutenak. Garaiko nekazarien kulturek, ein haundi batean, kultura animista dute.

Beste akribitate denbora aztertzearen, Domu Santulu pasa ostean eta aktibitate denbora bukatu ostean, natura hiltzen den garai bat irixten da. Nekazal aktibitatearik ez dagoen denbora honetan, gazteen artean eta komunitatearen artean dagoen biolentzia trufatzeko adibidez, gabonak izango ditugu: janari eta opari oparo eta itzeleko mozkorrekin pilatutako energiak deskargatzeko unea da. Gabon denbora guztian zehar, aberduaren 28an jai

trufaskoak egiten dira, kristautentzako inusente eguna, baina garaiko gazteek hierarkia sozialak eta egitura sozialak kritikatzeko erabiltzen zuten jai hau. Hau da hierarkia sozialen burla egiten zuten egun horretan. Eta azkenik inauteriak, berriro ere energiak deskargatzeko jaiak.

Laburbilduz, meatxusko eta beldurrezko giroaren aurrean nekazal komunitateek heuren mundu ikuspegi mentalak babesten zituzten. Eta mundu honetan jaiak begibiztako funtzio bat dute: ez da bakarrik denbora edo urtaro segida bat jarraitzearena baizik eta bizitza erregulatzerena baizik. Hau da, edozein gizarte bortiz batean beharrezkoa da bortizkeria desbideratzea eta hau jaiak erabiliz egiten da.

Beste elementu garrantzitsu bat: hauen pentsamolde magikoa esagutzea. Animismoan oinarritzen da kultura hau. Unibertso magiko baten bizi da biztanlerriaren zati handi bat. Askotan emakumeek transmititzen dute jakiteria hau belaunaldiz belaunaldiz. Sorginek, bai gizonek bai emakumeek, funtzio berezi bat daukate. Sorginak ez dira gerororago diabolizatuak izango direnak. SORGIN> Sors (latinez, suertes) + gin (zerbait egiten duena: suertea egiten duen pertsona, izan ziteken azti bat edo sendagile bat edo komunitate barruan problemak soluzionatzen dituen pertsona, metodo “magikoak” erabiliz.

Pentsamolde magiko horrekin jarraituz, honek elementu zentral bat du: hildakoen presentzia. Aurrekoarekin lotuz ezin da eztabaidatu emakumeek kultura herrikoi honetan eta trasmizioan izan zuen garrantzia. Aztergai daukagun kulturaren emakumeen rola, kultura dominanteak adierazten duena baino garrantzitsuago izango litzateke, hau da, juridikoki edo legalki emakumea bere senarraren edo aitaren menpe dago, baina “de facto”, kultura herrikoi honetan duen paperak ematen dio uste duguna baino askoz botere handiagoa; hiritik etorriko zen XVI eta XVII.mendeetan teoria naturalak emakumeen diabolizazio prozesua.

Bestalde, gorputzaren esagutza oso eskaza zen. Gaixotasuna eta heriotza ez dira identifikatzen kausalitate zientifiko eta natural batekin. Gaixotasuna eta heriotza askotan gorputzean elementu gaizkileek sortutako inbazioak izango litzateke. Kausa enpiriko eta zientifikoaren ezagutza eza nabaria da. Gorputzaren benetako funtzionamendua ez da ezagutzen eta leku askotan existitzen zen mediku bakarra, adibidez, pixa gauzak sendatzeko erabiltzen zuten.



Askotan medikurik ez zen existitzen, barbero bat zegoen eta albutari eta medikuaren arteko lan hibrido bat zuen. Honi aurre egiteko, nekazal komunitateek heuren zako koerentea zen metodo bat sortu zuten: emekumeen ebangelioa deitzen zen dokumentuan ikusi ditzakegu.



**-Zergatik susmatzen dugu European sorginak guztiz ohikoak zirela?** XVI.menedean masiboki agertzen dira sorginen deskribapenak. Hurreneko mendeetan ez dago gai honen inguruko informazioarik; orduan XVI.mendea baino lehenago hain arruntak zirenez sorginak eta hauen fuzio hain onartuta zegoenez, ez zegoen hauen deskribapenik egin beharrik.

### Jaiak

Ikusi dugunez, komunitatea osatzen duten pertsona batzuk besteei lotzeko erabiliko dira jaiak, baina askotan kultura honetan komunitatea desorekatzen duten gauzak egiteko erabiltzen dira jaiak. Europa guztitik hedatzen da CHARIVARI izeneko jai motak. Hau, jai burlesko bat da. Hau da, mundu honetan ez zuten pribatua eta publikoaren desberdintasuna eta etxe batean pasatzen zena, komunitate osoaren gain erortzen zen. Euskaraz GALARROTXA deitzen da.

Bi hitz erlijio popularrari buruz: gizarte honen erlijioa itxuraz eta izatez guztiz kristau izango zen baina beti ere elementu paganoekin ustartua. Hau da, kleroak eta goi kleroa proposatzen dituzten dogmak errespetatu egiten dena baina elementu propioak gehintzen.

### **3.3 Jokaera eta kultura herrikoiak hiri eremuan (XV-XVI)**

Europa mailan XVI.menedean zehar hirietan bizi ziren portzentaia, Jna de Vriers historialari jarraiki, 4.000 pertonetara igo zen. Kontuan hartu behar dugu Aro Berrian historia zeri deritzon, 10.000 mila pertsonatik gora iada hiria kontsideratzen zen. XVI.mende erdialderatz, hiri sare urbano artikulatu bat eratzen da, lehen ekonomia kapitalistarako funtsezkoa izango zena. Hirien sare edo urbanizazio prozesu hori Europa guztian ez da berdin emango. Herbeeretan urbanizazio prozesu garrantzitsu bat emango da 1600. urtean: biztanleriaren ehuneko 24 hirietan bizi zen. Gaur eguneko Ingalaterrak prozesu berdina eta Frantziako iparraldean ere bai.

Prozesu honetan hiri nukleo garrantzituena Paris eta Napoles izango dira. Gorakada garrantzitsuenak hirietan jaso ziren, hiriburu politikoetan gertatu ziren zeinetan erregearen gortea esartzen den eta botere politikoa hor esartzen den hor gertatzen dira garaiko gorakada demografiko garrantzitsuenak eta honekin batera merkataritza gertatzen den portuetan.

Gure gairako garrantzitsua: hiriaren forma/ morfologia landa eremuan gertatzen denaren aurka, hasiera batean gune txukun, ordenatu eta planifikatu moduan agertzen zaigu. Garaiko hirieta ordea animalia, zikinkeria... asko zegoen. Hau alde batera utzita, botere dispoizitibo moduan, hiriak badu morfologia txukun eta antolatua. Nekazal eremuarekin konparatua, zibilizatua, hezitua edo dominatua dagoen esparrua izango litzateke hiria. Kontrajartzen da barbaroa eta basatia den nekazal eremu batekin.

Hala ere, hiria ezin da multzo monolitiko moduan ulertu. Aro Berriko hiria sozialki oso segregatua, banatua dagoen espazio bat da. Hiriaren erdigunean boteretsuen ikur eta eraikin sinbolikoak: eliza, jauregi udaletxeak... eta gero arrabaletan txiroen taberna herrikoiak, jende arruntaren sozializatzeko lekuak, adibidez, putetxeak eta abar.

Egia da hirietako eliteek kanporantzako konexio askoz istuagoak dituztela, hau da, beste hirietako beste eliteekin oso lotuta, korrespondentzia eta gutun sareen bidez. Hortaz, berrikuntza tekniko, filosofiko, politikoak askoz azkarrago hirira heltzen dira nekazal gunera baño. Hau esanda, egia da periodikoki hirietara ere, landa eremuan krisiak geratzen direnean, landa eremutik emigrazio furteak ematen dira. Eta horrek landa eremuko kultura popular bortitza denbora joan ala inportatu egiten dute hirietara eta bertan geratzen dira nekazal kultura popular horien ezaugarri batzuk. Kultura herrikoi hori heltzen bada ere, kultura popular hauen errepresioa egiten duten agenteak daude, adibidez apaizak, eliteetako autoritateak, patrizioak, heuren aktibitate politiko eta ekonomikoetako distiplina eta ordena behar dutenak. Orduan, kultura herrikoi hauen erreprezioa emango da.

### **3.4 Kultura herrikoiaren errepresioa**

XVI-XVIII mende bitartean eman zen. Estatuaren aparatuek, hau da, koroaren aparatuek eta elizek denbora joan ahala heuren funtzionario eta agenteen kopurua haundituko duten einean eremu desberdinetan aritzeko kapazidade haundiagoa lortu dute. Indartze prozesua hau, gero eta sendoagoa da eta heuren borondatea inpozatzeko gero eta tresna eraginkorragoak dituzte. Botere hauek hamarkadaz hamarkada izango dute heuren proiektu politikoetan kultura herrikoi hauen ezaugarri batzuk erreprimitzeko beharra, adibidez, anistazunarekin amaitzea, superstizio edo magia moduan esagutzen zena ezabatzea eta mendekotazun edo erlazio hierarkiko bertikalak inpozatzea moral zorrotzareki.

Prozesu honek hartu izan du historiografian distiplinamentu izena eta erlijioarekin lotzen denean konfezioanismo deitzen da. Helburua koroaren edo gero estatua izango denaren kanpo geratzen ditren botere esparru guztiak suntsitzea da. Orduan, kultura herrikoei, magikoa dena XVIII.mendera arte errepresio zorrotz baten objektu izango litzateke. Prozesu honekin batera beste fenomeno bat gertatzen da: herri xumearen eta elitearen arteko aldentze kultural bat. Eliteak eta herri xumeak orokorrean XVI.mendean kulturalki antzekoak izango dira XVIII.mendean baino, bereziki kleroa. Prozesu honetan herri xume eta eliteen arteko aldentzea ematen da eta eliteen kultura gero eta finago izango da: hizkuntza finagoetan mintzatuko dira eta ez heuren hizkuntza barbaro moduan ezagutzen zutenetan; gorteko modak eta formak gero eta gehiago imitatzea eta orokorrean klase xumeekiko gero eta gorroto edo aldentze nabariago bat ematen da.

Errepresio hau bi metodo mota erabiliz burutu zen:

1. Errepresio gordina edo indarrak erabiliz (hau sorgin heizen kasua izango da). Metodo persuazibo edo xuabeagoak erabiltzea. Eremu protestantean identifikatzen dira metodo errepresiboekin. Eremu katolikoetan erabiliko ziren metodo limurtzaileak edo metodo persuaziboak, oso eraginkorrak zirenak. Orduan eremu katolikoetan egiten dena da Trentoko Kontzilioan hartutako erabakiei jarraituz, klero berriztu bat nolabait agente kultural batean transformatu eta honetarako lau metodo erabili:
  - a. Apezpiku edo apaiz berri baten sorrera. Formazio hobetua eskeiniz seminarioetan eta sistematikoki zotana, apaizaren janstziak eramateko beharrezkin.
  - b. Fldelen kontrol zorrotzagoak eta hometarako parrokiak liburuak sortu ziren; hor apuntatzen batailoak, ezkontzak... hori XVI.mendean hasten, trentoko kontzilioa eta gero.
  - c. Akulturazio, hau da, kultura aldatzeko tresna edo erakundeak, emateko tresna eta metodeoen sorrara; batez ere kofradiak. Adibidez, errosarioaren edo sakramentu santuaren kofradia. Helburua batasun soziala objektu erlijiosoen inguruan eratzea eta ez landa ermuan.
  - d. Jai paganoan natura ezabatzea eta katolikotasunarekin sakralizatu, adibidez, San Juan jaiak. Karga natural edo paganoa gutxitzea eta ortodoxia katolikoan sartzea.

Bi esparruetan, bai esparru protestante bai katolikoan, bi boterek, politiko eta erlijiosoak, lortuko zuen bi edo hiru mende tartean ohitura tradizional edo praktika herrikoien desagretzen nabarmen bat. Sentzu honetan, sorginkeriararen adibidea bi botere horien elkarlaguntzaren adibide perfektua genduke zeinetan botere politikoak erreforma protestantearen eta katolikoaren bultzada aprobetxatuko duen bere boterea haunditzeko.

Sorgin ehizei dagokienez, ez dakigu zenbat pertsona hil ziren sorginak ziren aitzakipean. Datuak eremu batetik bestera oso desberdinak ziren. Badakigu hildakoen hiru laurdenak emakumenak zirela eta laurden bat gizonezkoak. Sorgin ehiza garrantzitsuenak gaur eguneko Alemanian gertatu ziren, hor eman ziren sorginen erretze inportanteenak eta Frantzia eta gaur eguneko Suizako eremu protestanteetan ere bai. Batez ere kalbinisten sendotasuna gertatu zen eremuetan. Eremu guzti hautan, sorginak agertzen diren eremu guztiak politikoki eta erlijiosoki austuta eta oso banatuta dauden ermua dira eta beste faktora bat izango da hauek muga eremuak dirala. Sorginen erretzeak kuantitatiboki batez ere eman ziren 30 urteetako gerratearen denboran. Testuinguru horretan ematen dira sorginen erretze inportanteak.

Ikusi genuen nola sorginak, hau da sortek botatzen dituen pertsonak, guztiz bereiztu behar ditugu gero agertuko diren sorginetaz. Nekazal komunitateetan guztiz normala zen aztiak, igarleak, sendagilea....sorginak zirenak izatea eta komunitate horretan funtzio bat betetzen zutenak. Dirudienez, XV.mendea baino lehenago sorgin hauen existentziak ez zion botere ez politiko ez erlijiosoari arazorik planteatzen. XV.mende amaieratik hasten dira agertzen sekta diaboliko bati buruzko kontakisunak. Sekta honek itzelezko maltzurkeriak egiten ditu, uztak suntsitzen ditu, umeak hiltzen... eta hauek akelarretan biltzen dira, beti deabrua bere bileren presidente izanik eta honekin batera agertzen sorgin berri horren ezaugarriak izango direnak, adibidez animalietan metamorfoseatzen direla, bileretan orgiak egiten dituztela, dantza egiten dutela, hegan egiten dutela, eta batez ere fede kristauaren errefusa egiten dutela, sabata moduan esagutzen dena.

Hedatzen hasten da bi demonologo, Sprenger eta Kramer frile dominiku bik idazten dute maleus malefikal deitzen den liburua, hau da sorginen aurka egiteko tresna eta liburu horretan agaertzen dira gerora sorginak izango dituen estereotipoak: emakume bat, deabruari gurtza egiten diona, noizbeinka akelarretan parte hartzen duen pertsona eta maltzurkeriak egiten dituenak. Hau naturaz gaindiko botereak dituen pertsona bat da. Hor sortzen da sorginen aurkako paranoia moduko bat eta sorgina agente diaboloko batean bihurtzen da. Konfesionalizazio momentu honetan, etsaia izango den elementu bat. Sorginaren garapenaren analisia egiteko testuinguru materiala kontuan hartu behar da: hondamendi klimatikoaren haunditzea, izurriteak eta uzten eta ekonomiaren hondatzea, testuinguru orokorra. Testuinguru honetan hain ondamendi latzetarako arrazoi bat nola ez den aurkitzen, errudun bat aurkitzeko sorginaren pertsonaia agertuko da. Gero azkenik, badago politiko moduan definituko genukeen gai bat: errenazimentu garaiko monarkien sendotzea. Hemen estatu egitura hauek edo monarkia hauek nahi dute lehenago autonomia zabalagoa zuten guneeetan heuren boterea ezarri eta honek sorgin ehizen geografiarekin zerikuzia du. Sorginak agertzen dira botere subiranoek bere boterea bermaturta ez duten eremutean.

Sorgin ehizari dagokionez, hiru ardatzen bidez egin beharko interpretazioa:

- 1.Homogenizazio sozial eta erlijiosoa bilatzea.
- 2.Elitea eta herri xumearen aldentze prozesua .
- 3.Komunitate barnean gertatzen diren lixkarrak edo gatazkak askotan auzokideek edo kontrako familiak izango lehenengo salaketak egiten dituztela beraien liskarrak direla eta.

Ikuspuntu erlijioso batetik, sorgin ehiza ez da fedearen garbitasuna eta ortodoxia mantentzeko metodo bat baino; argi dago honekin batera errepresio kultural bat egon zela, hau da nolabait herri xumeari heuren kulturatik kanpo datozen elementu batzuk inposatzeko azaleratzen duela sorgin ehizen prozesu horrek. Diabolizazio horren helburu moduan beste eredu kultural bat inposatzeko borondatea dago. Baliteke batzuen arabera, sorginkeriararen arazoa eredu kultural biren talka izatea. Batetik, herri komunen magia eta

kristautasun herrikoen oinarritua dagoena, ekoizpen eta jabego komunitarioa proposatzen duena eta gizarte mailan berdintasun eta hiererkia eza proposatzen duena. Bestetik, mailakatutako gizarte bat, erlazio feudalak eta bertikalak proposatzen dituena eta komunitatetik kanpo datozen siniskerak bereganatzea proposatzen duen eredu kulturala.

Orduan, hemen zakontzeko joko dugu gure esparru geografikoan gertatutako sorgin ehizak aztertzea.

-Euskal herrian lehengo agertzen diren sorginehizak bizkaian agertzen, durango aldea. ez da kasualitate bat han yada fray alaonso nskin sekta erradikalaren ezartze eta sendotze bat izatea. Horren mugimenduaren astapenetatik sortzen 1527an durango aldean lehen sorgin ehiza. Bizkaian urte batzuk beranduago 51 sorginen agerraldi bate ematen eta hurrengo urteetan seberion , balmaseda eta beste leku baten.

-Zugarramurdi 6 pertsona hil baino da sorgin ehiza garrantzitsuena. 19.mendean ingelesek espaniar inperioaren aurka egiteko logroñoako autodefena oharrak o nske aldau espainiarrak basatiak eta tal zirela zabaltzeko.

-Nafarroan bereziki sorginen agerraldiak 1525urtetik aurrera ematen. nafarroen sorginen kontzentrazioa haundiena erresumaren iparraldean ematen, burtzirietan, baztan eta erronkari baten. Argitu behar da inkizizioak laikoan menpe egon zela , ez da erakunde soilik erlijioso. Egia da aita santuak baimentzen errege katolikoei inkizizio espainiarra sortzea baina aginte guztia erregeen eskuetan dago eta ez elizaren eskuetan

**-Zergatik nahi zuten inkizizio propioa erregeek?** Monarki konpozatu batean erregeak ezin du erresuma bakoitzaren ohitura eta egiturak aldatu eta erresuma bakoitzak bere instituzio propioak ditu, batek izan ezik: inkizizioa, hau monarkia osoan erabli daiteken tresna bat da erresumen arteko homogenizazio haundiago bat lortzeko. Inkizizioko buruzagiak erregeak izendatzen ditu eta hasiera batean inkizizioa oso pertsona gutxi osatzen dute. Denbora joan ala, funtzionario, ofizial eta agente gero eta gehiago izango ditu: alde batetik komisarioak eta bestetik familiarrak, hauek dira inkizizioak tokian tokiko jazarpenak eta zalaketak egiten dituzten pertsonak. Bezegoen inkizizoren familia izateko betebeharrak: irakurtzen eta idazten jakitea eta bigarrenik gazteleraz jakitea.

Euskal Herriarn Logroñoako tribunala izan zen sorgin ehizetan kompetentzia zuena. Eta ikusteko sorgin ehizak zertan datzan eta zer den benetako helburua nafarroan gertatutako sorgin ehizen kronologia esagutzea interesgarria da:

1. Lehena, 1507an izan zen> 30 pertsona erreak izan ziren.
2. 1507tik 1525arte ez dago sorgin bat bez.
3. 1521an ematen kanporatuak izan diren nafartar erregeen altxamentua eta pixka bat lehenago agertzen sorginak. Agramondarren bandokoak ziren sorginak eta hau aprobetxatua izan zen altxamendu hori erreprimitzeko eta erantzukizuna errege ordeak izan zuen.

4. 1527an eskualde berean beste sorginen agerraldi bat, hau ere kanporatutako errege erreginen altxamenduen ondorioz beldurra zabaltzeko helburua zuana. 150kide izan ziren epaituak sorgin ehiza honetan eta iada hemen hasiko dira testigu moduan umeak testigu moduan erabiltzeko prozedura.
5. 1539an berriro Erronkarin 50 pertsona inplikaturik sorginen agerraldi batean eta hauen artean 30 umeak ziren.
6. 1575ean nafarroako iparraldetik eta gipuzkoaraino hedatzen den sorginen agerraldi bat 136 pertsona auzipetuak eta hemendik aurrera prozesua moteldu egiten da.
7. 1595ean sorgin ehiza bat erresumako iparraldean ematen da.
8. Azkenik 1609an Zugarramurdi eta Urgazubiko kasuak: 31 kondenatu eta 11 heriotz zigor baina 6 bete. Honen ostean urte batzuetara agertuko Bizkaiako eta Gipuzkoako agerraldiak eta hemendik aurrera eta ostean iada ez daude sorginik.

Esan daiteke goi mailako taldeek euren nagusitasun sozial, politiko eta kulturala esartzeko erabili zutela sorgin ehiza eta inkizizioa, aginte laikoa eta koroaren menpe zegoena. 1630 aldera, sorgin ehizak bukatuta daude Euskal Herri guztian eta Europan ere atzerakoa. Goi mailako taldeek ez daukate sorginen beharrik bere sistema politikoa ezartzeko, hortaz ez dago beharrik komuniteta horiek erreprimitzeko.

# 4.GAIA: ARTEA, FILOSOFIA, NATURA. ERRENAZIMENDUTIK IRAULTZA ZIENTIFIKORA

## GOI KULTURA ETA KULTURA HERRIKOIA

Autore eta historiagileen artean eztabaida dago goi kultura eta behe kultura baten existentziaren inguruan. (Artolan ustez) Aro Berrian zehar klase xumeen eta eliteen artean gero eta aldente haundiago bat ematen da.

Gai hau gutxiengo sozial batek protagonizatzen duen gai bat da. Kultura herrikoen ezaugarri garrantzitsu bat iraunkortasuna da, hau da, mendeetan zehar ezaugarriak ez dirala asko aldatzen. Hau ez da gertatuko eliteen kulturarekin. Elitearen kulturak, aldaketak ditu ezaugarri nagusi moduan, arte, ekonomia edo politika alorrean. Izan ere, aldaketa historikoak elite txikien gutxiengo batetik hasten dira eta gero estruktura sozialaren beste sektoreetara zabaltzen dira. Elite honek protagonizatutako aurrerapauzu zientifiko, teknologiko eta artistikoen, sare horretan zeuden pertsonen ikuspegia guztiz aldatu zuten. Adibidez, ondo ezagutzen zituzten itsasoz bestaldeko kolonizazioak, komernikoren teoriak...

## ERRENAZIMENDUA ETA HUMANISMOA

Errenazimendua eta humanismoaren inguruan xehetasun kontzeptual batzuk egiten hasiko gara.

### **Errenazimendua.**

Italian hasten den mugimendu bat da, eta batez ere XIV. mendetik XVI.mendera garatu eta funtsean antzinateko baloreen berrezkurapena egiten duena. Berrezkurapen honen bidez, gizakiaren eta munduaren ikuspegi berri bat proposatzen du. Baina askotan pentsatzen denaren aurka ez da bakarrik artean edo literaturan ematen den fenomeno, politika, erlijioan eta zientzian ere bere eragina du; hau da, giza aktibitateen multzo guztiak inpregnatu eta bere barnean hartzen du fenomeno honek.

### **Humanismoa.**

Errenazimenduarekin batera joaten da maiz beste bigarren kontzeptu eta fenomeno bat: humanismoa. Humanismoak bere izena hartzen du garaian XIV-XV.mendetik garatutako ikaskuntza multzo batetik. Multzo hau *studia humanitates* deitzen zen, hau da, giza ikasketa. Ikasketa multzo horretatik hartzen du bere izena humanismo kontzeptuak, Behe Erdi Aroan egituratzen den ikasketa multzo horretan. Multzo horrek helburu moduan unibertsitatean lortzen ez zen gizakiaren gizatasun osoa eskuratzea zuen, ezagutzaren

bidez. Orduan gaitasun, hizkuntza eta inteligentzia garatuz, gizatasun hobeago bat lortzeko helburua daukate ikasketa hauek.

Konkretuki programa horietan poetika, filosofia morala eta historia ikasten ziren batez ere. Hauek garai hartan unibertsitatean ez ziren ikasten eta hau beti izan zen esparru kontserbadore bat.

Azkenik, kontzeptua zehazteko, humanista moduan ezagutzen zen ere antzinateko grekoa, latina eta hebrearra erabiliz kritika filologikoa burutzen zuten pertsonak. Heurek antzinateko testuak berrezkuratzean Erdi Aroko latin probretik askatu eta klasikoen lehen mailako interpretazio eta irakurketa zuzena egiten zuten. Humanismo kontzeptua, XIV-XV-XVI mendeetan ez zen erabiltzen, -ismorekin bukatzen diren kontzeptu guztiak bezala, XIX. mendean ez zirelako ezagutzen. (-ismorekin amaitzen diren hitz guztiak 19. mendetik aurrera). Humanismoa badela bizi jarrera bat, kultura berri bat.

Kultura edo bizi jarrera honetan eredu moduan hartzen zen antzinateko pertsonai haundien adibideak eta momentu horretan hasten da biografia haundien loraldia. Perfekzioa lortzeko nahian berreskuratzen ziren antzinateko gizon emakume handien adibidea eta hauek erabiltzen heuren jarrera kopiatzeko eliteen baitan. Elite horrek bere burua perfektuagoa egi nahi du herri xumetik gero eta aldenduago egon nahi duelako. Humanismo eta errenazimendu denboratik eliteek herri xumeekiko errefuxa ematen zuten eta gizon emakume perfektuago hauek erabiltzen *studia humanitatis* ezagutza multzoan eta horien bidez pertsonalitatea garatu nahi dute heuren gizakiaren lanketa hobeago bat, erretorika erabiltzen dute hobeto hitzegiteko eta hizkuntza hobe maneatzeko eta antzerkia, literatura eta olerkia eta gehiengoak dominatzen ez dituen arteak gero eta gustu handiagoarekin erabiliko ditu. Ezagutza multzo horrek, aplikazio praktikoa argi bat du lehen gaiarekin: adibidez, ikusten dena argi eta garbi Baltasar de Castiglione izeneko autorearen errenazimenduari buruzko testuinguruan idazten du "El cortesano" deitzen den tratatu bat eta da gorte berrietan erregearen botere esparru berrietan ezagutu behar dituen hizkera, teknika, arteak guzti horien laburbiltze bate egiten du errealtate politiko berri horretan eraginkorra eta aproposa izateko. Hau da, gorteko gizon emakumeak transformatuak gizakia izan beharko dira eta gorteko hizkera sinbolikoak ongi ezagutu beharko ditu.

Nobleziak, batez ere XV. mendetik gerraren monopolioa erregearen faborea galtzen duenean, bere egoera soziala mantentzeko erabiliko duen elementu bat izango da kulturarena eta *studia humanitatis* ez dira bakarrik ikasten ezagutzaren gustu ideal batengatik baizik eta botere aparatua berrietan erabiltzeko.



Garrantzitsua da ulertzea errenazimendua gerora definitzen den kontzeptua dela, humanismoa moduan. Denbora jakin batean eman ziren aldaketak nolabait definitzeko. Oso anitzak ziren aldaketa eta fenomenoak batzeko azkoz beranduago ematen den definizioa da errenazimenduarena. Lehengoa nolabait deskribatzen duena fenomeno hau, Jules Michelet izan zen. Jules, XIX. mendeko historiagileak, definitzen du 1400-1600denbora esparrua garai berezi bat bezala baina berak ez du definitzen errenazimendu moduan. Benetan errenazimendua ezagutzen dugun ezaugarriekin definitu zuena Jakob Burckhardt. Honek liburu bat idatzi zuen "La cultura del renacimiento en Italia". Liburu honetan agertzen da gaur egun errenazimendua osatzen duten topiko guztien azalpena: haustura bat ematen da eta indibidualismoaren gorakada-; izaera laikoa duen mugimendua, antzinateko izarea paganoan eragina izan zuena

Errenazimendu eta humanismoko figura garrantzitsuenen ezaugarrietako bat autoritateak esandakoa dudan jartzea da eta dudan jartze horrek eramaten du naturaren obserbazio zuzen bat egitera autoritaterekiko independentea izango dena. Herri xeearentzat mehatsuzkoa eta arrixkutsua zen ordena natural batekin kontrajarrita, elite hauentzako naturan koka dezakegu jaingoikoak sostutako arremen, ekilibrio eta abar. Bi munduren ikuspuntu kontrajartzen dira modu nabarmen batean.

Beste ezaugarri bat historiaren eta iraganaren ikuspegi berri bat izango da, kritika filologiko eta ikerketa filologikoaren bidez lortutako antzinatearen ezagutzak eramango die errenazimenduko gizon emakumeei historia eta iraganaren beste ikuspegi bat izatera. Humanisten aktibitate garrantzitsua kritika filologikoa izan zen. Lorenzo Vallak latinez idatzitako "Konstantinoren donazioa" ikertuz, analisi fin baten bidez lortzen du frogatzea donazio hori faltsua dela. Horrelako aktibitateek antzinatearen ezagutza horrek progresu historikoaren beste zentzu bat ematen du. Erdi Aroan bazekiten aurregoko garaiak eta norberaren garaiak desberdinak zirela, baijan ez zaukaten aldaketa kuantitatiboen arrastorik. Ez dute benetan eboluzio edo progresu historiko baten ideai zehatz bat eta ikerketa filologikoaren bidez errenazimentuko filologoek izango dutena.

Aldatzen dena da eliteen artean euren historititate erregimena. Gogoratzen badugu nekazarien artean historizitate erregimena edo denboraren zentzua zirkularra zen eta iraunkortasuna da kultura popular horretan historizitate erregimena edo denboraren zentzua markatzen duen elementua. Iada historia ez da beti aldaezina den jaungoikoak sortutako ordena edo estruktura; aldatzen den denborarekin historia bat da eta hortaz gizarteak aldatu ahal duten fenomeno bat, hau ez zegoen ain argi Erdi Aroan.

Alor erlijiosoan, ez dago dudaik paradigma antropozentriko berriak, hau da gizakia errealitateran erdigunean jartzen duen paradigma berri horrek haratagoko bizitzaren eta jaingoikoarekin beste erlazio bat bultzatzen du, intimoagoa. Indibidoak berak eskritura santuen bidez jaungoikoarekin erlazio bat izateko aukera duen ideia egongo da, beti ere

arrazoia eta fedea uztartzeko ideiarekin, jaungoikoa arrazionalki ulertzeko. Kleroenkiko edo hierarkia elizaren aurkako kritika zorrotzak, askotan erreforma protestantearen ideien aurrekari moduan ulertu ahal direnak.

### **Errenazimendu edo humanismoaren fase edo belaunaldi desberdinak.**

- Lehenengo belaunaldia: XIV.mendetik garatzen den Francesko Petakaren inguruan eta bere zirkuluan garatzen dena. Guztiz aintzindariak diren ideiak zabaldu zituen. Fase honek hurrengo belaunaldiekiko izugarritzko eragina izango du eta orduan oso garrantzitsua izango da. Petrarka olerkari jakintsu eta antzinatearengatik irrika sentitzen zuen filosofo bikaina zen. Indibiduoraren papera eta Erdi Aroko mende ilunak atzean usteko beharraren ideia plazaratu zuen esplizituki eta idatziz. Patrarkaren zirkulu barnean topatu ahal dira Simone Martini...(eta pertsona gehiago).
- Bigarren fasea: Petrarkaren aztarna jarraituz izango litzateke Coluccio Salutati protagonistatutakoa, bere zirkuluarekin. Coluccio Antzinateko Erromaren mirenzlea zen. Honez gain, Florentziako errepublikako kantzilerra izan zen eta hortaz XIV.mendeko azken urteetan bere idea humanistak gauzatzeko plataforma bat izan zuen.
- Hirugarren fasea: Beti ere Florentzian hamarkada batzuk beranduago iada guztiz humanista errenazentista den 3. belaunaldia garatzen da, aurreko belaunaldiekien lotuta. Adibidez, Beuneleski arkitekto bikaina, Leon Batista humanista, Donatello...

Lehenengo belaunaldi hauek Florentzian eta beste hiri estatu batzuetan garatzen dira, baina batzuetan Florentzian garatzen den zirkulu txiki honetatik pasatzen da deskribatzen den hurrengo fasea heldutasun edo kristalizazio denbora moduan, XV.mende amaieratik 1570.urtera arte. Hemen ematen da errenazimenduaren inguruan pentsatzen dugun garaia. Arteetan badaukagu Rafael edo Michelangeloren italiar protagonismo handia eta literaturan Ariosto eta iada agertzen dira Europako beste lekutatik autore garrantzitsuak: Herbereetan Eramos eta Durerro. Fase honetako gauzarik garrantzitsuena Erdi Aroa eta Aro Berriaren arteko desberdintasunak gero eta modu argiago batetan nabarmentzen direla da. Aurreko belaunaldietan garai desberdinen arteko nahasmenak daude, baina fase honetan ere antzinateko ereduak eta errenazimenduko elementu propioak askoz gehiago nabarmentzen dira. Askok uste zuten eliteen artean garai honetan jada garaiko Rafael edo Michelangelok Antzinateko artista hobereenak baino obra hobeagoak egin zitezkeela; orduan uste da antzinatearekiko gailentasun bat lortu zutela. Fase honetan berrikuntzaren erdigunean jada ez da Florentzia izango baizik eta Erroma. Erroman Julio II. eta Leon X. Aita Santuan agindupean humanismoa eta errenazimendua asko garatu zirela frogatu izan da eta batez ere Aita Santuak lortu zuela Erroma baten garaiko artista eta pentsalari hobereenak biltzea eta bertan egitea euen lana.

Erromaren zentralitatea hegemonia labur bat da. Urte gutxi irauten ditu Europear perspektiba batetik ulertzen badugu. Historiagileek 1527.urtean jarri dute hegemonia honen amaiera. Karlos nsekuantosek Erroma zakeatuko du eta askorentzat errenazimendu eta humanismo fase honen amaiera izango zen. Zakuratze honen ondorioz, Erroman bizi ziren artistak bertatik alde egingo dute. Hemendik aurrera bai errenazimendua bai humanismoa fenomeno polizentsikoak izango dira, hau da, leku anitzetan ematen direnak eta ez bakarrik erdigune batetik edatzen den fenomeno. Iada ez da berrikuntzaren edigune nagusi bat egongo. Honekin batera hegemonia Italiarreren amaiera iritsiko da.

Fase hau atzean utzi gabe, esan behar da denbora honetan, 40urte hauetan, asko ere nabarmenagoa egiten direla letren, artearen eta pentsaereren loraldia eta monarkien proiektu inperialak. Hemen asko nabarmentzen da lotura hori, hau da, inperioa, boterea eta letren arteko lotura. Letrak, inperioarentzako armak eta ejertzitua baino garrantzitsuagoak dira. Erromatar inperioan latinak izan zuen papera berreskuratuz, letren botere inperiala ere guztiz berreskuratzen da. Lehenago azaldu bezala, humanistek behar zuten boteretsuen laguntza eta boteretsuek ere fase honetan humanisten beharra daukate heuren botere aparatuak sendotzeko eta perfektuagoak egiteko, eta horrela erakusten du Maquiavelok eta idazle gehiagok idatzitako printzipeentzako idatzitako liburuetan.

Eta gutxinaka fase bakoitzarekin bukatzeko azken fase bat izango genuke, errenazimendu berantiar moduan esagutzen dena. askok uste dute errenazimendua 1520 eta 1530ko hamarkadetan bukatu egiten dela beste faktore batzuen artean erlijioaren erruz, hau da erreforma eta kontraerreforma kataolikoek bultzatutako ideia erlijiosoek nolabait amaituta. Hala ere, egia da 1520-1530 tik aurrea gertatzen dela errenazimendua ez dela bakarrik eredu klasikoetan oinarrituko bertoko eskualde bakoitzeko elementu propioetan baizik. Hau da, esparru politiko bakoitzeko garapen kulturala autonomoagoa egiten da bai Frantzian bai gaur eguneko Espainian eta beste leku batzuetan ere. Esan izan da errenazimenduaren fase hau izango zela periferien ordua, hau da, beste leku batzuetan autonomoki mugimendu honen printzipioak garatzen diren ideiak. Adibidez, baltikoan, mundu arabean edo esparru amerikarrean. Aurrekoarekin oso lotuta, hainbat esparrutan antzeman izan zen italiar guztu eta moden aurkako erreakzio bat. Adibidez Ingalaterran edo Hungrian, Frantzian elite maila arrunta egiten da forma eta moda italiarrak kritikatzeko. Hau da, hamarkada batzuk lehenago mireztu eta kopiatu egiten zutena fase honetan kritikatu egingo da.

Humanismoa edo errenazimendua iada ez da izango talde oso txikien borroka kultural bat, XVI.mendeko fase honetan humanismoa ez da bukatzen, normalizatu egiten da, hau da, iada ez da sistema kulturalaren aurka plantetzen, normalizatu egiten da eta botereak bereganatu egiten ditu honen printzipioak. Fase honetan italiar influentzia kritikatu egiten da baina antzinateko eragina ere alde batera uzten da. Frantzian interes itzela pizten da

antzinako *druinen* magien inguruan. Persiako magoen jakitua ere ikertu egiten da eta indiako bramanena ere bai, hau da, jakitua eta ezagutza zabaltzen eta bereganatzen dituzte eliteko europarrek. Kultura arabiarrek ere interes itzela pizten du Iberiar Penintsulan. Antzinateko Egiptoko ezagutza exoterikoak ere badira ikerketa batzuen puntuak. Honekin lotuta, esparru politiko bakoitza garai hartan garatzen dagoen iraganarekin bere lotura propioa egingo du eta ez eksklusiboki Erroma edo Greziarekin. Adibidez, Hungariarrak hunoekin identifikatzen hasten dira; espainiar askok ikusiko dute Godoetan heuren kulturaren jatorria; dinamikak Zibrioetan... Lehenago barbaroetan ezagutzen ziren kulturak, esparru bakoitzaren historian kokatu dira. Euskaldunen artean, XVI.mendean eliteko euskaldunak euren burua Kantabria deitzen hasiko dira; XIX.mendera arte Euskal Herria politikoki Kantabria deituko dute.

Fase honetan erreanimenduak eta humanismoa gaztzen dira eguneko bizitzetan. Nola Italian hasitako elite mugimendu txiki bat europar ia guztien bizitzako elementu bat izatera arte. Zoritxarrez ez daukagu benetan elitekoak ez diren taldeen informazio haundirik, datu eta material gutxi dade. Hortaz, beti erabili beharko ditugu eliteek utzitako materialak. Baina ikusten dugu material hauen bidez nola ideal errenazimendukoak eta humanistak eguneroko bizitzan nola daukaten plasmazioa. Hau garbi ikusten dugu esparru domestikoan: talde dominanteak bizi ziren gazteluetan edo nekazal eremuan egindako dorretzetan, Italian, Frantzia, Ingalaterran eta abar baina Iberiar Penintsulan ez; hau zalbuzpen at da, izan ere, ez zegoen beharrik gazteluetan bizitzeko eta hortaz bortizkeria bideratzen dira konkista inperialera eta noblezia hirietan bizi da.

XVI.mende amaieran, argi ikusten da gazteluetan eta dorretzetan eragin errenazentistaren heldutzea. Lehen gotorleku zena egoera baretzen doan elean etxe errenazentista batean transformatzen da. Europa osoan ikusi dezakegu italiar gustuko galeriak paseatzen ibiltzeko, jateko edo estatuak jartzeko. Honek arazo bat planteatzen du: hau italiako klimarekin ondo doa baino ingalateran daon klimakin fatul. Baina asko ikusten dira bai galeria, balastradak, frisiak eta abarreko elementuak hamarkada batzuk lehenago Erdi Aroko estiloko ziren dorretzetan eta asko zabaltzen dira bai landa eremutik bai hiretan. Elementu horiek garaiko jendearen egunerokotasunean agertzen dira.

Eliteek erakusten dute interes berri bat herri xumearekiko aldentzeko orduan; identitate berri hau sortzeko, elementu berriak sartzen dira baina beste elementu garrantzitsu bat erretratu izango da eta ilobiak, individualismori oso lotuta. Familiako ilobiak izango dira familiako kide garrantzitsu baten irudia edo familiaren armaria. Hauxe gain, topatu izan dira garaiko zeramikak edo ontziteriak. Etxeko ontziteri edo zeramikak Dureroren edo Rafaelen edo beste artista batzuen diseinuen kopia egiten zutenak. Honez gain beheko suetan ere hasten dira agertzen diseinu klasikoak, adibidez doriko, joniko edo korintioak. Bestalde, elitearen kultura elementu garrantzitsu bat izango da estudioa, hau esparru pribatu bat da, bertan irakurtzeko, gogoetak egiteko eta batez ere idazteko.

Honez gain lehenago existitzen ez zen beste elementu bat lortegia izango da. Honi garrantzi handia emango zaio jauregi eta gazteluetan paseoak egiteko, estatuak kokatzeko eta horrela Zizeronek bere lanetan deskribatutako lorategiaren kopia egiteko.

Autobiografiak ugaldu egingo dira eta eredu indibiduala gailendu egiten da komunitatearen gaintik. Laguntasunaren kontzeptu berri bat ere agertuko zaigu, hau da, soziabilitate berri bat aktibitate intelektualen inguruan bilduko dena.

## 5. MATXINADATIK IRAULTZARA. HERBEREHETAKO ETA INGALATERRAKO IRAULTZAK.

Gaiarekin hasi aurretik, iraultzaren eta gatazkaren definizio bat beharrezkoak dira. Orokorrean gatazka soziala azaltzeko soziologiak bi teoria multzo proposatzen ditu: alde batetik teoria kontsentzualistak daude, honek defendatzen du edozein sistema sozial funtzionala dela, beti akordiorantz bakarrik egiten dutelakoan. Gatazka soziala salbuespen bat da, hau da, egoera **anormal** bat. Beste aldetik berriz teoria konfliktibistak daude (gure gain eragin handiena dutenak). Teoria hauek diote edozein gizarte barnean kontraesan edo kontradikziozko interesak daudela, lehenago edo beranduago talka sortuko dituztenak. Teoria honetan gatazka soziala gauza guztiz **naturala** izango da. Are gehiago gatazkek historiaren motorra izango direla diote hauek, adibidez, Marxismoa.

Iraultza edo errebolta/ matxinaden definizioak desberdindu behar ditugu. Iraultza bat beti hasiko da matxinada edo errebolta batetik, baina alderantziz ez da gertatuko berdina.

- Chalse Tilik ( ezta idazten ola baina ) iraultza izango litzateke = historia guztiz aldatzen duen gertakari multzoa, biztanleriaren zati handi batek parte hartu behar duena, non estatuaren aparatu politikoak indarra erabili behar duen. Boterearen eskualdatzea eman aurretik beti agertzen dira bi bloke nagusi subiranitasuna aldatzen dutenak eta guztiz bateraezinak direnak, beste modu batera esan orokorrean iraultzak gerra zibilarekin lotuak daude. Egoera iraultzaile bat (bi bloke bateraezinek beraien aldarrikapenak plazaratu) eta iraultza bat bereizten dute. Egoera iraultzaileak ez dira beti iraultza batetan gertatzen, iraultza gauzatzeko fakzio biek indar armatuen zati bat beraiekin izan behar dute.

### 1.1. XVI-XVII. MENDEETAKO GATAZKAK, MATXINADAK ETA IRAULTZAK

Monarkia konposatuen aurrean aurkitzen dira gatazka hauek, hau da, politika dinastikoetatik sortzen diren konposaketen aurrea: Beraien lege eta erakunde propioekin

beste entitate nagusi batean txertatzen diren lurralde multzoen aurrean. Errege bakar batek hainbat entitate desberdin eta anitzen gainean gobernatu behar du, beraz, planteatzen zaion arazo nagusia: nola bateratu edo integratu entitate hain desbedin hauek? - patronazkoaren papera kontutan hartzea beharrezkoa da. Erregeak periferietako eliteekin negoziatzen zuten, gobernantza errazteko batez ere. Horretarako erregeak baliabideak eliteen artean banatu behar ditu, koroaren helburu bakarra ahalik eta baliabide gehien lortzea izaten zen eliteei emateko (XVI-XVII. mendeen)

*-Erregeak zenbat eta baliabide gehiago, eliteei emateko aukera gehiago, beraz eliteak erregearekin batu. Baliabide asko behar zituen horretarako.*

Tradizionalki XVI eta XVII. mendeetako gatazkak banatu izan dira, erreboltak eta iraultzetan (Ingalaterra eta Herbereheak). Nolabait elite periferikoak integratzeko beharrezkoak diren baliabideen porrota, aztertuko ditugun kasuetan elementu amankomuna izango da hau.

## 1.2 HERBEHERETAKO IRAULTZA

Probintzia batuen edo herbeheretako iraultza, europear tradizio iraultzale baten berebiziko garrantzia duen iraultza bat da. Iraultza honek, tradizio iraultzaile bat sortzen du. Aurrekariak edo testuingua:

**-1579.urteko Utrecheko ituna:** Kalbinismoa, Protestanteen jazarpena gelditzeko, zerga berriak ekiditeko eta beraien entitate berriak defendatzeko. Bertako probintzia kalbinisten arteko elkarlaguntza bultzatzen du.

**-1581. urtean Independentzia Aitorpena (Agurazio aitorpena):** historiako lehenetariko independentzia aitorpen bat da. Estatu orokorrek Felipe II. arekin dituzten loturak apurtu egiten dituzte. Honekin zilegi da printzipe tiraniko batetik askatzea.

Testuinguruari dagokionez Herbereheak ikuspuntu ekonomiko eta komertzial batetik toki apropos batetan kokatzen ziren, Europako leku batetik Ingalaterrara bidaltzen baziren bertatik pasatzen ziren, beraz bitartekari lanak egiten zituzten. Beste alde batetik oso aldentuta zeuden bi esparruren arteko lotura egiten zituzten: Iparraldeko itsasoa edo baltikoa, Hansako merkatariek Herberehetako portuetara eramaten zituzten beraien produktuak eta han hartzen zituzten mediterraneotik eta Afrikatik zetozen produktuak.

Honez gain manufakturen ekoizpenaren gune esanguratsu bat ziren, esaterako kalitate handiko ohialak egiten ziren, bazegoelako nolabaiteko industria bat. Beraz esan daiteke herrialde oparo bat zela. Hala ere ekonomikoki hain aberatsa zen eskualde honek ez zeukan inolako autonomia eta batasun politikorik. Hainbat dukerri, konderrri eta jaurerrik osatzen zuten, oso banatuta zen gunea zelarik. XIX. eta XV. mendeetan ehun urteko gerran zehar, Borboniako etxeak lortzen du eremu honen gaineko kontrola. 1477. urtean Inperioaren parte izatera pasa ziren, hau da Hasburgotarren eraginpean geratu ziren. Hasburgotarren etxeko bat eta Borboniako etxeko bat ezkondu egin ziren eta horregatik

Inperioaren parte izatea, gainera seme bat izan zuten Felipe I.a zeina Juanarekin ezkondu zen. Beraz nolabait Hispaniarren eskuan geratu zen (Karlos V.a).

Bestalde, funtseko faktore bat agertzen da garai honetan iraultza hau azaltzeko: erlijioa. Lutero oso goiz hasi zen protestantismoa zabaltzen eta oso goiz sartu ziren bere ideiak Herbeheretan. 1535.urterako iada milaka anabatista zeuden Herbeheretan, batiz bat Amsterdamen. Anabatisten gorakadak, Karlos V. euren aurkako neurriak jartzera erematen du eta lehen aldiz sartiko du espainiar inkizizioa Herbeheretan.

Hala ere Hispaniar autoritateekin talka egin zuen elementu garrantzitsua Kalbinismoa izan zen, 1551. urtetik aurrera indar askorekin sartu baitzen Herbeheretan. Kalbinista moderatuenak hirietako oligarkietan aurkitzen ziren, batez ere Holandan (Probintzi bat zen). Kalbinista erradikalenak berriz Burgesia txikian eta klase herrikoietan batzen ziren. Emango den funtsezko prozesua, iraultza ulertzeko, XVI. mendeko erdialdean gertatzen den sinbiosi bat izan zen: erregearen aurkako kritikak eta intolerantzia katolikoa batzen dira. Laburbilduz Herbeheretako eskualde oparoetan faktore ekonomiko eta politikoak faktore erlijiosoekin batu ziren. Sinesmen askatasuna izango da aurkeztua lehenengo eskubide natural moduan. Beste modu batera esanda, errege katolikoaren aurkako protesta ezin zen disidentzia erlijiosotik banatu. **Garrantzitsua da gogoraraztea garai honetan edozein mugimendu politiko, matxinada edo iraultzak azken finean legitimazio erlijiosoa izan behar duela.**

Karlos V.ak abdikatu ostean, 1556. urtean, tirabirak hasiko dira Felipe II.arenkin. Erresumaldia hasteko Herberehei izugarriko fortuna bat eskatzen die, bere abentura finantziari aurre egiteko. Horrela hasi zuen bere erresumaldia. Beste alde batetik berriz egitura politikoa bere esanetara jartzen du, bere erdi arrebak bat izendatzen du gobernadore moduan eta hau laguntzeko Kontseilu Laguntzaile bat ezarri zuen (Herbereheak gorroto zuten). Herbereheak saiaturik dira beraien aristokrata lehialenen artean gobernatzen. Azkenik badakigu Felipe II.ak bere burua erlijio katolikoaren defendatzaile nagusi bezela zuela eta protestanteen aurkako munduko buruzagi moduan.

Hasieran saiatu zen gauzak konpontzen patronazkoaren bidez, Herberehetako aristokrazia bere sisteman sartu nahian. Hau laster aldatuko da aristokrazia kalbinista errebolten protagonista izatera pasatuko baita. Felipe II.aren neurri antiprotestanteak ugaltzen diren heinean, segituan hasiko dira matxinada txikiak:

**-1575.urteko Anbereseko matxinada:** kartzelan zeuden protestanteak askatzeko matxinada.

-1575.urtean noblezia txikiko 400 pertsonen inkizizioaren kontrako manifestu edo pakto bat zinatzen dute eta hainbat aristokrata batzen dira pakto honetan.

Hau guztia, Felipe II.na ohartu gabe gertatzen da, bere indar guztiak Turkiarren aurkako gerran dituelako.

Matxinada fase honen barnean, 1566. urtean aristokrazia eta nobleziako 300 konfederatu Margarita gobernadorearen jauregian sartu ziren, eta erejeen aldeko neurriak hartzera behartzen dute. Gobernadoreak bere burua arriskuan ikusi zuen eta erabaki zuen inkisizioaren aktibitate guztia berehala gelditzea.

Denbora gutxira, Flandesen eta iparraldeko probintzietan kultu eta ospakizun kallbinistak publikoki gero eta gehiago ospatzen hasten dira. Honek erakusten du nolabait monarkiak bere autoritatea galdu egiten duela.

Honen aurrean gortearen erreakzioa bortizkeriaz josia izan zen, bai alde batetik Margarita gobernadoreak eskuratutako kultu askatasunak ez du egoera baretzen (1566). Testuinguru honetan gorteak erabaki zuen indarra erabiltzea errebolta amaitzeko, hau guztia Albako dukearen presiopean izan zen. Armada prestatu eta gero (Italiatik mobilizatu behar izan zen), Albako dukea 1567. urtean Bruselasetan sartu zen eta bertatik antolatu zuen errebolta presio bortitza. 12.000 pertsona auziperatu eta 1000 erailak. Errebolta indarrez amaitzeak kontrako efektua lortu zuen, izan ere errebolta erradikalizazio nabarmenera eraman eta aldarrikapenen justifikazioa propokatu zuen. Hemendik aurrera gerra hasia zen eta beste dinamika batetan sartuak ziren.

### **1.3 INGALATERRAREN KASUA: BRITAINIAR IRLAN EGOERA.**

#### IRLANDA

- Dimentsio materiala: nekazaritza eta abeltzaintza nagusi zen eremua, lehengaien esportatzailea.
- Dimentsio politikoa: 1541etik erresuma zen, Ingalaterrari batua. Kontseilu batek eta bere ordezkariak (Lord Lieutenant) gobernatzen zuten. Bigarren konkista ingelesa. Ulster-eko buruzagiek kontrari egiten dute (Bederatzi Urteetako Gerra, 1594-1603)
- Dimentsio soziala: biztanleria oso anitza (Old Irish, Old English, New English).

#### ESKOZIA

- Dimentsio politiko-soziala Highlands edo goi-lurrak, leialtasun klanikoaren bizirautea, aparatu burokratikoaren gainetik. Estuardoek klanen leialtasun hau haustu nahiko dute. Lowlands edo behe-lurrak, kultura frantsesa eta ingelesaren eragin nabarmenagoa zeukaten. Orokorrean, erresuma (edo, hobeto esanda, honen buruzagi nobleak), 1603ko koroen batasunetik aurrera, erregearekiko aldentzen doa.
- Dimentsio erlijioso: presbiterianoen indarra.



## 1.4 LEHENENGO IRAULTZA INGLESA.

### AURREKARIAK: KARLOS I.AREN ERRESUMALDIA (1625-1649)

Karlos I.aren gobernu pertsonala, 1629. urtetik 1640. urterarte izan zen. Neurri hau ohitura politikoaren aurkako erabakia zen eta gainera bere gobernu propioa sortzen du. Honek erregea gero eta isolatuago egotea ekarri zuen.

Ezaugarri garrantzitsuena krisi parlamentarioaren jarraipena izango da. Hala ere, ez dauka inolako gogorik baina 1628an Frantziako protestaneeri laguntzeko espedizio bat montatu nahi du. Hortarako ere parlamentua deitzen du. Garai honetan daude bi parlamentu garrantzitsu.

1. 1628an lortzen du itzelezko diru laguntza, bere espedizioa montatu dezake. Baina laguntza hauen truke aurkezten diote papeltxo bat non hura sinatu beharko duen. Papeltxo hori da, gaur egungo Britainia Handiko kontituzioan dagoen Petition of Rights.
  - a.) Berak sinatzen du handik aurrera parlamenteak onestuko ez dituen zerga guztiak ilegalak izango dira eta herriak ez dituel zertan errespetatu.
  - b.) Militarrak zibilen etxean ostatua hartzeko debekua. Praktika guztiz hedatua zen baina honen ondorioz uste baino garrantzitsuagoak dira. Honek esan nahi du ingeles bakoitza bere etxean jauna dela eta baimenik ematen ez badu ezin direla sartu bertara. Bakoitza bere etxean libre izango litzateke. Gutxira bere frantziar protestanteen espedizioak itzelezko prorota sufritzen du eta iritzi publikoa azaldu eta haserretu egiten da. Momentu honetan, amorrua ingalaterrekin hedatzen da eta Bukingham Londresen herailia izaten da.
2. Dirua behar du eta beste parlamentu bat konbokatzen du 1629an. Berrito dirua eskatzen du, baina agertzen da tipo bat oraindik ez dena oso famatua. Oliver Congruel. Parlamentuaren sesioan altxatzen da eta eskatzen du egin dezan mesedez arminianismoaren aurkako aitorpen bat. Arminianismoa zen korrante erlijioso ba puritanoek estimatzen zutena, larregi katolikoak zirelako (korrante oso minoritarioa zen, esaten zuena → gizon emakumeak ez daude predestinatuta infernura edo zerura joango diren, askatasun propioa dute. Doktrina katoliko bat da). Orduan doktrina honen aurkako doktrina bat eta zerga hauen aurkako neurri berriak sinatu behar ditu diruaren alde. Gertakari hauen ostean Karlos I. goa oso haserre dago eta erabakitzen du handik aurrera ez duela inoiz gehiago parlamentua deituko eta gobernu pertsonala den moduko faseari ekingo dio 1629tik aurrera. Honen arazoa hurregoa → erresumak estimatuko du hau del ohitura politikoaren aurkako erabaki bat eta Karlos I. goa saiatuko da errege espainiar eta frantziarrek egiten duten bezla kiente txiki batzuen bitartez burutzea. Biltza eta kontseilu txikien bitarteko parlamentua egiten du. Honek funtzionatzen zuen baina badu ondorio larri bat, erregea gero eta isolatuagoa egongo dela erresumarekiko eta honek lagunduko du bere aurkako disposizio edo jarrera bat garapena ematera.

## IRAULTZA INGLESAREN KAUSAK

- **Politikoak:** Aipatutako Parlamentuaren eta erregearen arteko tentsio nabarmena.
- **Ekonomikoak:** gerrarako baliabideen etengabeko eskatzea, erresuma zorpetzera eramaten duena. Hau da, politikarekin ere oso lotuta dago, baliabide hauen inguruan sortzen den gatazka, liskarra edo desadostasuna izango delako parlamentua edo erresumaren arteko hausturara eramango duena. Momentu jakin batean parlamentuak baliabide gehiago eman nahi ez dituelako.
- **Intelektual / ideologikoak:** iraultza zientifikoaren hastapenak, testu sakratuen eztabaida librea, ideai iraultzaileak eratzeko egokia dena. Enpirismoan oinarritutako filosofia natural bati buruz hitz egiten dugu (froga eta erroreak, esperimendazioa) → Joera honek Ingalaterran garrantzi goizagoa izan zuen. Guk zientzia bezala ezagutzen dugunak, eramaten gaitu ez antzinako filosofiak egiten zuen moduan errealitatea ikustera baizik eta hau eraldatzera → zientzia latinez ezagutza da. Honek eramaten du, errealitatea eta natura eraldatzeko proiektu batera. Eta errealitatea eraldatzeko asmo horren barnean konprenditu behar da errealitate politikoa eraldatzeko posibilitatea.
  - Testu sakratuen eztabaida librea ezinbestekoa zen → zentsuraren baretzea dugu. Ideia iraultzaileak hedatzeko guztiz egokia den aktibitatea da.
  - Inprentaren sorrera: ideia berri horiek leku batetik bestera hedatzeko guztiz garrantzitsua duen papera betetzen du.
- **Erljiosoak:** Eliza ofizialaren tentsioak puritanoekin (disidente eta internoekin) eta antipapista herrikoekin.

## GERRA ZIBILAREN ERAGILEAK

Lehenengo eragilea Common Prayer Book delakoaren afera (1637), liburu berri honen hedapena Eskoziara iritsi zenean altxamendu berriak sortzen dira Ingelesen inposizioen aurka. Protesta aurrera eramateko modua Eskozian National Covenant mugimendu edo erakunde berria sortzea izan zen, eliza Eskoziarraren alde egingo zuena. Erregea saiatu zen mugimendu hau indarrez zapaltzen, baina arazo bat izan zuen: bi urtetan arazo ekonomikoak zituen eta 1639. urterarte ez du lortzen armada sendo eta handi bat mobilizatzea. Bestalde Eskoziarren berriz beraien armada propioa sortzeko aukera izan zuten eta horrela Lehenengo Apezpikuen Guda eman zen. Gertakari baketsu bat izan zen, bi armadak zutik jarri ziren baina ez zen biolentziarik egon.

Hala ere tentsioak ez ziren inolaz ere desagertu are gehiago Eskoziako matxinoek erresumetako beste sektore edo oposizioekin ere harremanak egitea eta oposizio honek erresuman garrantzi berezia hartu zuen. Beste aldetik erregeak behin betiko arazo hauek amaitzeko asmoa erakutsi zuen, nolabait konponbide militar bat eta horretarako finantziario beharra zuen. Horrela parlamentuari eskatu behar izan zion finantziarioa eta 1640. urtean gobernu pertsonalaren amaiera eman zen.

Diru eskaera horren aurrean parlamentuak azken 11 urteetako bidegabekeriak salatzen ditu, diruaren truke. Azkenik parlamentua bertan behera uzten du eta horregaitik ezagutzen da parlamentu laburra izenez.

### PARLAMENTU LUZEA 1640-1653

Karlos I.ak hartzen du erabaki bat-. Eskoziarren aurrerapena gelditzeko New Castelen ezarri eta egunero diru kopuru bat eman. Klase popular eta herrikoien ez zaie erabaki hau gustatzen eta Londreseko kaleetan matxinada bortzitzak ugaritzen hasten dira. Matxinada hauetan erregearen ministro garrantzitsuenen erailketa eskatzen da, baita lau apezpikurena ere. Azkenik Irlandan gobernatzen zuen kondearen ohiuak eta aldarrikapenak entzutzen dira. Guzti honen aurrean berriro ere parlamentua deitu behar da, hau da parlamentu luzea. Egoera zaila da eta komunen kamara batzen da gehien bat, aktibitate oso intentso baten bidez oso denbora esparru labur batetan neurri guztiz erradikalak hartzea eramaten du: Aurreko urteetan hartutako zergen abolizioa, hainbat instituzioen desagertzea...

Parlamentuak Covenanterekin paktu bat: New Castletik irten eta berriro ere Eskoziara bueltatzea. Naiz eta egoera lasaitzen doan, Irlandara bidean doala Matxinada Katolikoa gertatzen da Irlandan eta honek sarraski itzela izan zuen ondorio bezala.

Ingalaterrako iritzi publikoa orokorrean guztiz alde zegoen Irlandako Matxinada Katolikoa zapaltzeko. Arazoa: Erregea zen jaiotzaz armadaren komandante gorrela eta errepresio hori burutzekotan erregeak eman behar zuen baimena, fase honetan erresuma ez zen erregeaz guztiz fidatzen eta badaude iritziak esaten dutenak erregea eta Irlandako matxinada elkarlaguntzan dabilzala. Karlos I.a komunen kamaran sartzen da 1642. urteko urtarrilean: soldaduekin sartzen da bost kide eraginkor kartzelaratu nahi dituelako. Aldi berean Londresen matxinadak hasten dira. Kmara barruan apezpikuak kanporatuak dira. Erresumaren eta erregearen koroaren aurkako Defentsa Batzorde sortzen da, eta Londresko dorrearen okupazioa emango da. Azkenik miliziaren legearen aprobazioa egin zen, hau da buruzagitza militarra parlamentuaren esku geratzea, koroaren absolutismoaren aurrean erresumaren askatasuna bermatzeko.

Erregeak parlamentuari 1642. urteko abuztuan gerra aitortpena egiten dio. Gentryaren zati handi batek erregearen alde egiten du, baita Ingalaterrako mendebaldeak ere eta azkenik Galesek ere bere alde egingo du. 1643. urtetik aurrera Matxino Irlandar katolikoak ere erregearen alde egin zuen. Beste aldetik parlamentuak Eskoziarren laguntza lortzen du (Covenanters).

Gerra aurrera joan ahala prlamentarioak barne liskarrak izaten hasi ziren eta hainbat korrontetan banatzen joan ziren: alde batetik Puritano moderatuak, beste alde batetik Presbiterianoak eta azkenik erradikalak. Izan ere gatazka hau korronte erlijioso politiko erradikalen agerpenerako testuinguru guztiz aproposa izan zela esaten da. Erradikaletan

garrantzi gehien Levellers-ak izango ziren eta sinismen asakatasuna aldarrikatzen dute, baina demokrazia perfektua ere bai, hau da monarkiaren eta Lord-en abolizioa.

Parlamentuak bere armadaren porrotak ikusita, hau da erregearen armada zena baina orain parlamentuarena zena. Parlamentuak New Model Arming eratu zuen, armada herrikoi erradikala zen eta identitate oso sendoa zuen. Honekin gerrari buelta ematea lortu zuten eta erregearen armada bi urtetan desagertarazi zuen. Karlos I.a parlamentura eramane zuten eta hau akordioak bilatzen saiatu zen, arrakasta handirik gabe. 1648ko apirilean Kronwolk hitzaldi batean erresumak erregea epaitu behar duela aldarrikatzen du. Erregea epaitzeko epaitegi goren bat sortzen da eta honek erregea erresumarekin zeukan paktuaren hausturagatik akusatzen du. Erregearen exekuzioa eman zen.

Herberehetan bezala funtsezko arazo bat azaleratzen da: nola gobernatu monarkia gabe? Hasiara batetan errepublika aldarrikatzen da, bain aoraindik ere ez dute argi nola gobernatuko duten.

### ERREPUBLIKA (1649-1660)

Kroweltarrek eratutako estatu kontseiluaren bidez gobernatzen saiatuko dira, erregea ordezkatzuz. Hala ere erregerik ez badago barne gatazkak areagotu egingo dira, kasu honetan hasiera hasieratik. Hasieratik ere Leverrek konposizio trinkoak egingo dute estatu kontseiluaren aurrean, kontseilu honen eta Armadaren Batzorde Orokorren izaera aristokratikoa ere kritikatzeko dute. Errepublikak ez zituen erradilaketen itxaropen proiektuak betetzen eta honen aurrean etengabeko matxinada orokor bat proposatzen da. Azkenik Irlandan gerra egitearen aurka agertuko dira Levellerrak eta bi matxinada garrantzitsu burutuko dituzte.

Errepublikaren buruzagitzan biraketa autoritarioa emango da. Hasteko Irlandaren baketzea burutuko du, sarraski bat izan baitzen (Cromwell zen buruzagia). 1652. urtean parlamentuak errepublika bakar bat sortuko du hiru erresumetarako. Talde erradikal disidenteak ere erreprimetuko zituen eta errepublika garaia izan zen horren urrezko garaia.

Errepublika disidentzia politiko erlijiosoaren urrezko garaia:

1. Ranters (1649-1651): Kleroaren bitartekaritza errefusa, ikuspegi panteista, bekatuaren negazionudismoa, maitasun askea, ezkontzen errefusa.
2. Quakers: unibertsitate ikasleek, soldaduak izan zirenek... Hierarkien eta edozein antolakuntza erlijiosoren aurkakoak ziren.

Biraketa autoritario horretan Cromwellek protektoratu izeneko fasea ere pasa zuen, 1653. urtean estatu kolpea eman zuen, parlamentua desagertaraziz. Horrela Ofizialen buruzagi bihurtzen da. Beste parlamentu bat osatuko du, Lord Protector: Errepublikaren babesle izendatzen du bere burua. Egoera kaxkartzen joan zen, Espainiarren eta Probintzia Batuetako espedizioetan porrotak nagusitu ziren eta inperio hauekin lehia bortzitz batean

murgildu zen, horrela presio fiskalak gora egin zuen. Errege izendatzea eskaini zioten baina koroa ez zuen onartu, oinordetza onartu zuen: bere semea izendatu zuten (urte batez egon zen). Erregearen aldekoak altxatu ziren eta bi hamarkadaz luzatu zen iraultza honen ondorioz monarkia ezarri zuten azkenik 1661. urterako.

## 6. FRANTZIA. ERLIJO-GERRAK ETA FRONDA.

### 6.1 FRANTZIA XVI-XVII. MENDEETAN.

Frantzia, graiko Espainia edo Britania Handiarekin gertatzen zen moduan, ordena konposatu bat da, politika dinastikoak eta familiarrek eratzen dute hori koroaren boterearen menpean. Hala ere, garrantzitsua da periferiako hainbat probintziak oso autonomia zabala zeukatela (euren erakunde fiskal eta politikoekin) azpimarratzea. Probintzia hauek *Pays' d'État* moduan ezagutzen dira. Aldiz, Frantziaren bi herena erregeak kontrolatzen zuen, bere funtzionario eta gobernadoreen bidez. Hauek *Pays d'élection* (autagaien herrialde edo probintzia) moduan ezagutzen ziren.

Egituraketa territoriala konplexua zen baina hala ere, esan beharra dago erregearen botereak XVI.mendetik aurrera absolutismorako joera nabarmena erakusten duela. Hemen interesgarria da ikuste oso arrakasta gutxiz egiten dituela nahi hauek erregeak. Izan ere, erregeak botere eta erakunde garrantzitsuenak gortean kontzentratzea lortzen du baina ez du lortzen bere etsaiak alboratzea. Frantziak inperio bat ez duenez, ezin du bere klase dominantea beste esparruetara bidali, eta hare garrantzitsuago, ez ditu izango inperio horrek eman ditzazken baliabideak.

**-Nondik aterako du koroak bere proiektuak aurrera eramateko dirua?** Funtsean zergak igotzen, hau da, ahal duen bakoitzean erregeak diru gehiago izateko zergak igotzen ditu eta honek presio fiskala handitzen du. Arazoa da parlamentu edo estatu horiek ostopoak jartzen dituztela eta zailtasun horiek jarrita nolabait ostopatu egiten zutela erregearen proiektu absolutista. Orduan erregeak erresumaren egitura tradizionalaren aurka egingo du. Frantziar Estatu Orokorra ez da deituko 1614.urtetik iraultzan Frantsezara arte, hau da, ordezkartza tradizionala ez da konbokatzen tarte horretan.

Lurraldearen eta egituraketa politikoaren konplexutasun honen parte ziren XVI.mendetik aristokraziako familia garrantzitsuek gobernadore moduan kontrolatzen zituzten probintziak (*Pays' d'État*). XVI.mendetik aurrera gobernadore horiek, erregeak aukeratutakoak, dira erresumako famili aristokrata garrantzitsuenen kide eta sarritan han presentzialki ez baziren egoten ere (probintzietan), botere handia zuten probintzia

horren biztanleriaren gain. Koroak orduan betiere mesfidatik begiratzen zuen, aristokratek euren klientela sarearen bidez dena kontrolatzen dutelako. Hua larritu egiten da gobernadore postu hauek herentziaz pasatzen zirelako aitatik semera eta hortaz erregeak ez du sarritan benetako aukera pertsona bat. Mehatsu handia da horaindik aristokraziaren botere itzela.

Sistema politikoan, botere politiko eta judizialaren gailurrean zeuden iada aipatutako parlamentuak. Garrantzitsuena edo zaharrena Pariseko parlamentua izango litzateke. Euren parlamentu hauen funtzio administratio eta judizialen gain, beste funtzio bat dute: erregearen aginduak edo erregearen ediktuak onartzea, hau da, erregeak dekretu bat eman arren, parlamentuak ez badu onartzen hori ezin da indarrean jarri. Hortaz, hau ere koroarentzat oso arazo handia da, honek ere bere boterea murriztu egiten duelako eta bere joera absolutizta errotik ebakitzen duelako eta gainera parlamentuak euren gain hartzen dutelako erresumaren legedi fundamentalaren defentsa. Estatu Generalak falta direnean parlamentuek erresumaren ordezkaritza bere gain hartzen du ere.

## **6.2 ALDREBESKO KONFESIONALIZAZIOA. FAKZIOAK, ERLIJIOA ETA GERRA (1562-1598).**

Herbeheretan eta Ingalaterran gertatu zen bezala, Luteroren lanak bizkortasun handiz zabaldu ziren Frantziako erresuman. Sorbona Unibertsitateak 1561ean luteranismoaren gaitzezpena egiten du eta parlamentuak eta erregeak ere protestantismoaren kondena egiten dute. Guzti honek ezin du gelditu konbertsioen gorakada. Honen aurrean, politika errepresibo gogor bat ezartzen da eta epaitegi berezi bat sortzen du koroak herejia deuzetatzeko, "Kamara Sutsua" moduan ezagutzen dena eta honen ondorioz, hainbat hereje sutara bidali ziren. Hemen ere, Herberehetan gertatu bezala, 1550.hamarkadatik aurrera kalbinismoa gailentzen da. 1550.hamarkada amaieran kalbinisten kopurua oso nabarmena zela kalkulatu izan da. Kalbinisten barnean talde sozial guztietakoak zeuden eta batez ere mendebalde eta hegoaldean kontzentratzen ziren. Kalbinista hauek frantzian **hugonote** izena hartzen dute.

Esan dezakegu XVI.mende erdialdean Frantzian krisi erlijioso nabarmen bat dagoela eta krisi erlijioso honekin batera krisi ekonomiko eta finantzarioa etorriko da. Garai hartan Espainia monarkikoan gertatzen hari zen legez, Enrike II.na bankarrotan erortzen da (erresumaren zorra 15 milioi libretatik 40 milioi libretara pasa zen). Frantzian, erlijio gerrek oraindik zulo sakonagoan sartu zuen koroa eta guztira 8 gerra emango dira, orokorrean gerra denak oso bortitzak izan ziren eta bi bando naguietatik biolentzia handikoak. Gerra hauen bortizkeriak arreman handia dauka koroaren ahuleziarekin. Funtsezko gatazka erlijio gerretan, katoliko edo erromatarren eta hugonoteen artean eman zen, baina kasu honetan ere erlijioak ez du dena azaltzen. Benetako konfliktoa, aristokrata haundien koroarekiko erresistentzian ematen da, leinu eta liskarren gatazka bat. Egoera honen eta koroaren ahulezia nabarmen honek, erresuma 100 urteko krisi luze batean sartu zuen.

Koroaren egoera larria zen, eta 1560. hamarkadan familia haundi baten nabarmena eman zen, Guisako dukeak, katolikoak zirenak, eta koroaren inguruan posizio oso ona izatera heldu ziren, eta are gehiago erresumaren politika kontrolatzera heldu ziren. Goi eliteak, Guisako dukeen gorakada horrek, ezin egon larria sortu zuen, eta Hugonoteak eta erresumako odol printzipeak, hauen aurka jarri ziren (Antonio Borboikoa adb). Odol printzipeak, aristokrazian erregearekin lotura familiarrak zuten aristokrata talde bat ziren. Oposizio aristokratiko honen indarra, argi eta garbi erakutsi zuen Amboiseko konplota 1560an. Beraz, gakoa da erregeak era bere familiak kontrolatzeko dauden akzio borroka.

.Oposizio honen aurrean, Katalina Medicikoak protestanteei hirien kanpoan euren kultura egiteko askatasuna eskeintzen die 1562an, hugonote edo kalbinistentzat. Katoliko moderaatuek erabaki hau begi onez ikuzi zuten baina erradikalek ez, Guisako dukeak adibidez. Vassy izeneko leku baten, 1562ko martxoko egun batean, hugonoteak beraien kultura egiten zeuden eta Guisako dukea agertu zen hauen kontrako errepresioa gauzatu eta bertako asko hil zituen. Gertakari hauen aurrean hasiko dira erlijio gerrak.

1. Protestanteek hainbat hiri okupatu, Ingalaterraren laguntza medio. Amaiera: Amboiseko ediktua. Ediktu honek hugonoteen egoera hobetuko du.  
ERLIJIO-GERREN HASIERA
2. 1567/1568 martxoa. Hugonoteen fakzioak erregeren familia kontrolatzeko saiakerek eragin zuen. Kasu honetan saiakera egin zuena Conde printzea izan zen eta honen aurka aristokrata erradikalek egin zuten, Conde printzea kalbinismora bihurtu zelako.
3. 1568 iraila / 1570 abuztua. Gerra ostean, Karlos IX erregea dena hugonoteena urbiltzen da, Herbeheretan kalbinistei laguntza eskaini eta horrela monarkia espainikoei aurre egiteko. Buruzagi katolikoek urbilketa hau begi txarrez ikusten dute eta Coligny I.ren aurkako atentetu bat egiten dute. Hau zauritua suertatu zen baina kasualidadez momentu horretan hainbat aristokrata protestante Parisen aurkitzen ziren ezkontza batera joateko. Orduan, eskontzara bertaratzen dira eta erreginak katolikoek aurkako erasoak egingo direnen beldur, buruzagi hugonote garrantzitsuenak gainetik kentzea erabakitzen du, gatazkak ez sortzeko eta egoera baretzeko. Horretako, operazio horretan sarraski bat gertatzen da, oso handia, eta ez doaz bakarrik buruzagi hugonoteen aurka are gehiago, hiriko, hau da, Pariseko miliziek protestante guztiakin amaitu nahi dutela esaten dute eta huen aurkako jazarpen bortitza ematen da. 1572ko abuztuan gertatzen da Bartolomé deunaren gaueko sarraskia, 2000 protestante baino gehiago hilak izan ziren eta erresumako gainontzeko hiri askotan fenomeno hau errepikatu egiten da.
4. 1573an bukatzen da, hugonoteentzat zenbait hiritan kultu askatasuna eskeiniz.

5. Enrike III.na 1574an tronura igotzen da eta protestanteei kontsezioak egitearen kontra azaltzen da eta honek hugonote buruzagien aurkakotasuna pizten du. Bake garrantzitsu batetara irixten dira “Jaunaren bakea” eta gero “Bolioko ediktua” hugonoteen momentu gorena eta euren eskubideak bermatzen dituen momentua izango da. Honez gain, parlamentu guztietan jazarleku guztien erdia hugonoteentzat erreserbatzen du, hau da euren eskubide politikoak ere bermatu egiten dira. Hau ezin onartuz Liga Katolikoa sortzen da, aristokrata erradikalek buruzagi moduan zuzentzen zuten armada antzeko bat.
6. -7. 1576-1580, beste bi gerra, hauen amaieran protestanteen eskubideen murriztea.
8. 1584an oinordetza arazo oso larri bat gertatzen da monarkian, oinordea Nafarroako Enrike protestantea delako. Hau errege izatea askorentzat onartezina zen eta honen aurrean buruzagi katolikoak batu egiten dira eta Aita Santuak hugonote garrantzitsuen eskulmazioa egite lortzen du. Eta honek eratzen du 8. gerra, Liga Katolikoa eta Errege gaiaren arteko gerra.

Fase honetan, azkenengo gerra honetan, gatazkak dimentsio internazional argi bat hartzen du, Aita Santuak, Monarkia Hispanikoak, Ingalaterrak eta Probintzia Batuek hartzen baitute parte. Nafarroako Enrike katoliko bihurtzen da eta orduan zilegiztasun osoa hartzen du Frantziako errege izateko eta 1594an Borboiak Frantziako tronuan sartzen dira. 1598an Enrikek dekretu bat ematen du: Nanteseko ediktua. Hugonoteen eskubideak bermatzen dira bertan. Kultura hainbat hiritan, gehienentan Parisen izan ezin, hainbat parlamenten aurlien erdi eta orokorrean administrazioan postu bat lortzeko katolikoek zeuzkaten baldintza berberak. Honekin, erlijio gerrak amaitzen dira.

Idea fundamentalak: erlijioak bigarren mailako papera. Jokoa nola boterea lortu koroa ahulduta dagoen testuinguruan eta kasu honetan konfesionalizazioa ematen da boterea lortzeko eta hau fakzioen bidez. Fakzio bat legitimatu protestantismoaren bidez eta bestea katolizismoa bidez. Erlijio sarraskiak justifikatzeko ideia.

### 6.3 KRISIAREN JARRAIPENA

Esan dugu egoera larria dela eta berreraikitze prozesu bat egin behar zela. Bestalde, koroak bere funtzionarioekiko kontrola zailtasun handiz bete zen XVI eta XVII. mendeetan. Koroak bere sendotze prozesuan funtzionario propioak sortzen zituen; XVII. mende hasieran Enrikek 50.000 funtzionario zituen. Arazo bat dauka. **Prezioa fiskalaren areagotzea** ematen da baina erakunde tradizionalak erresistentzia egiten dute. Orduan modu masiboan lanpostuak zaldu egiten ditu eta saltzen dituenen **ezin du euren**



**kontrola bermatu**; honek diru sarrera haundia ematen du baina kontrara kontrola galtzen du. Horretarako inpostu edo zerga berezia asmatzen du “Pualette” izenekoa. Zerga hau 9 urtero kargudunek ordaindu behar zuten kopuru nahiko inportante bat euren postua gordetzeko. Zerga hau koroaren diru sarreraren portzentai haundi batean bihurtu zen, aldi berean kontrol eza erginez. Hortaz, hor badugu iada lehenengo arazo bat. Beste arazo haundi bat **banaketa erlijiosoa** izango zen, hau da, bi komunitate erlijiosoren existentzia (hugonote eta katolikoak). 1598ko ediktua, Nantetseko ediktua, eta gero nolabait egoera normalizatu egiten da baina oraindik liskarrek eta gatazkek jarraitu egiten dute. Hirugarren arazo bat izango da oraindik **goi aristokraziaren aurkakotasuna ez dela bukatu**.

Hiru arazo multzo hauei gerraren faktorea gehitzen zaie. Gerra kaxkartze faktore oso garrantzitsu bat izan zen. 1624tik aurrera, Richerdier kardenalaren eraginpean, Frantzia nolabait inplikaturatu geratu zen **30 urteko gerratean**. Hasiera batean zeharka zegoen, Holanda eta Suediari laguntza prestatuz.

### Testuingurua

1635tik aurrera berriz, zuzenean Habsburgotarrek gerra deklaratu dute eta gerra horretan zuzen-zuzenean sartu ziren. Gerraren parte hartze honek erresumaren barnean kontrakotasun nahiko handia sortu zuen eta eliteen artean, batez ere debotoak, frantsesez “devots” izeneko taldean, hots, katoliko zintzoen artean. Katoliko zintzo hauek ez zuten ulertzen nola errege katoliko batek beste errege katoliko batek nola ziezaiokeen krisi egoera batean gerra deklaratu. Hor barne errefuxa gertatzen da arrazoi ekonomikoengatik eta baita erlijiosoengatik ere. Izan ere, gerrak baliabide ekonomiko handiak eskatzen ditu eta frantziako gizarteko sektore guztientzako izugarritzako ahalegina zen gerra batean sartzea.

Egoera honetan, argi dago erregeak gerra finantziatzeko zergak igo behar zituela, izan ere, ez zuen inperiorik. Honek, monarkia gero eta diktadura edo sistema autoritario baten aiantza handiagoa izatera iritsi zen. Zergak eta baliabideak jasotzeko akordio eta negoziazioak alde batera utzi eta bere autoritatea horren gainetik jarritz, baliabide horiek herritik eta autoritateetatik ateratzen saiatuko da. Horretarako bere klientela edo administrazio propioa erabiltzen zuen eta batez ere oso gorrotoak ziren intendenteak (frantziar erregearen zerga biltzaile pertsonalak; erregeak probintzietara bidaltzen zituen intendenteak bere izenean, askotan indarkeriaren bitartez). Frantziar sektore sozial guztien gainean zerga mordoa erortzen hasten da, hau da, zerga berriak sortu ziren, gizonen eskaera edo erreklutamenduak, armadei lehengaiak eskuratzeko agindu edo dekretuak, etb.

Momentu batean, zeinetan XVII. mendeko krisialdiak gogor jo zuen herri xumea eta bai eliteetako sektore bat, hau da, gero eta diru-sarrera gutxiago dituzten gizarte sektore

hauek geroz eta zerbitzu gehiago eta handiagoak egin behar zizkien erregeei eta erregearen administrazioari. Honek nolabaiteko ezinegona sortu zuen frantzia guztitik. 1635ean ere, frantzia gerran zuzenean sartu zen urte berean, 14 herritan matxinada garrantzitsu gertatzen dira. Hauek batez ere zergen kontrakoak ziren. 1636an, gainera uzta txarra gertatzen den urtean, oposizio zabala gertatzen da intendenteen aurka eta gizon eta elikagaien eskaera egitera dijoaztenengana ere. Dinamika matxino honetan eta erregearen diru eskaera gelditzen ez den momentu honetan, "Périgord" izeneko eskualdean, garaiko matxinada handiena gertatu zen, ordura arte erresuman gertatu zen matxinada handiena dudarik gabe. Honek "Croquants" izena hartzen du, Krokanteen matxinada 1637an hasten dena, militar noble erretiratu batek sortutako basoetako herrixketan sortzen duen armada herrikoi batekin. Hainbat noble txikik eta aristokrata handi batek buruzagitzen duten armada herrikoi eta nekazal armada batekin hasten da. Armada honek gero eta jende gehiago mobilizatzen duenak, kalkulatu izan da 8.000 pertsona batu zirela armada honetara. Armada honek eskatzen dio erregeari zergak kentzea, gerra aurreko mailara jeitea (diru-eskaerak...) eta haien eskubide zein pribilegioak errespetatzea, hau da, gerra aurreko egoerara itzultzea eskatzen dute. Honen aurrean, Luis XIII. erregea guztiz izututa geratzen da matxinadaren aurrean baina hala ere errepresio eta zapalkuntza handia egiten du hauen kontra eta bere lege zein neurriak ez ditu inola ere aldatzen.

Askotan nobleak eta jaun feudalak ziren monarkiaren gehiegikerien aurrean nekazariak defendatzen zituztenak eta askotan noble eta aristokrata horiek dira herri-xehen eta nekazarien hizkuntza propioa hitz egiten duten bakarrak. Izan ere, garai honetako frantzian %30ak ez zuen frantsesez hitz egiten. Matxinada gehienak estatu aparatuauren aurka agertzen dira garai honetan eta ez nobleen kontra (lenuoko arrazoiangatik; laundu iteielako ta ola). Hau izango litzateke "Fronda" izeneko matxinada handiaren testuinguru orokorra.

"Fronda" 1648tik 1653ra luzatu zen matxinada handi bat zen, ez zen iraultza eta frantzia guztian zehar zabaldu zen. Nahiko gatazka konplexua da eta fase desberdinak ditu. Sektore sozial guztietatik laguntza jaso zuen matxinada honek, hau da, noble handienek protagonizatu zuten eta gehienek koroaren aurka egin zuten momentu batean edo bestean, parlamentuek eta parlamentari zein epaileek ere, elizgizonek ere frondaren alde egin zuten (bai goi eliz gizonek eta baita abadeek ere) eta azkenik nekazari, laborari eta merkatari askok ere. Beraz, matxinada honek gizarteko sektore desberdinak barne hartzen zituen. Kalkulatu da matxinada honek, zuzenean edo zeharka 1 milioi pertsona hil zituela. Matxinada hau sortzen ari zen estatu aparatuauren aurkakoa zen, errebolta antiabsolutista zen.

## 6.4 ARISTOKRATAK, PRINTZIPEAK, HANDIAK: KONSTITUZIO TRADIZIONALAREN DEFENTSAN.

1610etik 1648ra, askotan matxinatu ziren aristokrata horiek eta odolezko printzipeak bezala definitu genituen aristokrata sektoreak ere, hau da, erregearen familiako aristokrata handiak ere. Konspirazio handienak momentu honetan sortzen dira, askotan gortean sortzen dira eta aristokraten klientela sareen bidez, probientzietara zabaltzen dira eta hauek ere matxinatzen dira.

Posible da matxinada hauek arrazoi berekoiengatik izatea, hau da, aristokratek haien interesen defentsan egiten zutela. Baina argi dago bazutela oinarri politiko edo konstituzional bat. Garai honetan konstituzioaz ari garenean argi dago ez garela idatziriko konstituzio batetaz ari, ez zelako existitzen. Baina, bazegoen ohiturazko konstituzio bat, hau da, izatezko konstituzio moduko bat.

Odolezko printzipeek eta orokorrean noble handiek, batez ere erregearen familian dauden noble handiek, uste zuten konstituzio hau edo erresumaren legedi fundamental hau, erregeak bere politika absolutistaren bidez, nolabait bortxatu eta deuseztu egiten zuela eta horrek haien matxinadak argudiatzen zituela. Hau da, haien ustez, erregeak ez bazituen haien konstituzioak erabakitzen, pentsatzen zuten erregearen kontra joateko eskubide osoa zutela.

XVII. mendean oraindik, aristokratek uste zuten, erresumaren gobernuaren benetan famili asuntu bat zela eta erregeak ez zuela bere kabuz soilik gobernatu behar. Ideia honen ondorio izango litzateke adingabekoa den erregea dagoenean, bere osaba eta izeben kontseilu bat sortu behar zela erresuma gobernatzeko, hau da, familia asuntu bat zen eta hortaz erregea adin txikikoa zenean, familia arduratu behar zen erresuma kontrolatzeaz. Adb; Luis XIV. a hasieran adintxikikoa zen eta beraz ideia hori martxan jarri behar zen, baina errege honek ez zuen hori egin, hau da, ez zuen bere familia deitu eta horren ordezkariak izendatu zituen, berak bere kabuz gobernatu eta botere absolutua izateko. Beraz, erregeak ohituraren aurka zihoan guztia egin zuen eta administrazio berri bat sortu zuen beti lehenagotik egin zen guztia alde batera utzi eta berak botere guztia eskuratzeko. Honengatik beraz arrazoitua zegoen matxinada egitea eta honek jende asko matxinatzea eragin zuen.

Noble hauez gain, beste kapareen talde bat zegoen; "Gentilhommes". Ez da noblezia handi edo tituludun bat baina koroaren aurka jartzen den erdi mailako edo behe mailako noblezia bat da. Hauek uste zuten erregearen gobernutik kanpo geratu direla, erregeak bere klientela propioari fabore egiten baitio, beste sektore batzuei noblezia emanaz. Garaiko frantzian bi noblezia mota daude:

Ezpatako noblezia→ Noblezia zaharra da, “Gentilhommes”-ak hau babesten zutenak ziren. Izan ere, hauek usten zuten beraiek zirela frantzia sortu zutenaren oinordekoak. Hauek erregearen kontra kokatu ziren.

Funtziozko noblezia→ Erregeak sorturikoa, erregeak plebeio bat har zezaken eta honi noblezia eman, erregeak nahi zuelako. Hauek ezpatazko nobleziarentzat ez ziren benetako nobleak.

Bigarren oposizio handi bat parlamentua da. Parlamentuak, ingalateran bezala, erregearen politika absolutistaren aurkako jarrera nabarmena erakusten dute eta erregeak sortutako zerga guzti edo ia guztien aurka egiten dute. Gainera, ez dituzte onartzen eta hortaz, indar gabe geratzen dira bere dekretuak. Aurrerago esan bezala, parlamentuak ez bazuen erregearen dekretua onartzen, hau indar gabe geratzen zen.

Mazarinok, erresumaren esku zegoen mekanismo bat erabili zuen zergak aprobatzeko/onartzeko; “Lit De Justice”, hau da, “Justiziaren Ohea”. Mekanismo honen bidez, erregea bera parlamentuan fisikoki badago, erregearen dekretuari ezin zaio kontra egin eta Mazarinok egiten zuena zen, erregea adingabekoa izan harren, hura parlamentura eramane eta bertan zergak igotzeko dekretua indartu. Hau nolabait tranpa egitea zen eta honek jendearen aurkakotasuna sortu zuen. Koroaren aurka erakutsitako jarrerak, parlamentuen popularitatea bermatu eta sustatzen du, jendeak eta herri-xeheak parlamentu hauek haien defendatzaile natural moduan ikusten dutelako. Parlamentuek diskurtsu bat sortu eta haien burua “antzinako kuria regis”-aren jarraitzaile bezala izendatzen dute, parlamentuek diote haien direla aristokraziarekin batera erresumaren gobernuan laguntzaile eta beharrezko aholkulariak gobernu aurrera eramateko. Hortaz, hau ideia funtsezkoa zen parlamentuaren popularitatean.

Parlamentuaren erresistentziari aurre egiteko, 1648ko abuztuan, koroak eta austriako Mariana erregeak, errepresioa proposatuko du, hau da, parlamentuko kideen aurkako errepresio nahiko gogorra. Baina, parlamentukoek ez dute kasurik egiten eta batzen jarraitu eta haien ekintzak egiten jarraitzen dute. Mariana 1648an pariseko parlamentura joan, hura itxi eta bertakoen aktibitatea mozten saiatzen da, eta orduan hainbat barrkada agertzen dira, herria matxinatzen den momentua da, haien eskubideen alde eta parlamentuen erabakien kontra egiteko. Mazarinoren aurkako panfletu ugari agertu ziren bertan; “Mazarinades” balidoen aurka egindako panfletuen izena da. Honek nolabaiteko iritzia sortzen zuten Balidotzaren kontra. Gazte asko irte ziren kalera, armik gabe, hondak (bibliari davidak goliaten kontra egiteko erabilitakoa) eta harriak erabiltzen. Honen homenez, antzinateko frantsesez honda horiei “Fronde” esaten zaie eta horregatik du izena matxinada handi honek “Fronde”.

Erregentea, hots, Austriako Mariana, guztiz izututa dago egoera honetan, eta Kondet erregearen lehengusuari, hiriburua ixteko agindu zion eta bertan jendea uztea ea horrela hauek amore ematen zuten. Estrategikoki oso ideia txarra izan zen, bertan batuta zeuden parlamentari, ahade, herritar...ek aliantza estuagoa lortu zutelako horri esker. Beraz, azken aipaturiko hauek indartu eta erregentearen errepresioa porrota izan zen.

Badirudi momentu batez Frondak irabaziko zuela, horren erakusgarri izango litzateke Felipe IV.a espainiako erregearen ordezkari baten heltzea Parisera, Frantziako koroarekin bake batera heltzeko helburuarekin. Egoera honetan, honek esan nahi du parlamentukoek legitimitate bat zutela negoziazio horietara heltzeko.

1649ko martxoan, bat batean fronda amaitu egin zen Austriako Marianak parlamentukoekin akordio bat adostu zuelako.

Zergatik amaitu zen matxinada fase honetan bapateko modu honetan? Ingalaterrako Karlos I.aren exekuzioaren berria iritsi zen eta parlamentariak beldurra dute uste dutelako Fronda agian mugimendu errepublikar eta iraultzaile batean transformatuko dutela. Beraz, dena gelditu zuten eta akordio batetara iritsi ziren, ingalaterran gertaturiko jarrera iraultzaile hau frantzian ere ez gertatzeko. Hala ere, herritarrek, intentsitate txikiagoan baina matxinada honekin jarraitu zuten, batez ere Mazarinoren kontra. Beste 4 urtez aristokrata handiek frantziako parlamentuaren kontra jarraitu zuten. Frondaren arazoa; oso anitza zen mugimendu bat (herri-xehea, apezpikuak...) zen eta ez zuen interes amankomun batzuen defentsa mantentzea lortu eta talde bakoitzak azkenean bere interes propioen defentsa egin zuen, honek beraz nolabaiteko batasuna kendu zion matxinadari eta gutxinaka itzaltzen joan zen. Koroak oraindik baditu hainbat etxai, batez ere aristokraten artean.

1661 urtean, Luis XIV.a Mazarino hil ostean, Monarkiaren buruzagitza osoa hartu zuen eta bere etsai guztiekin bukatzeko neurri guztiak hartu zituen. Momentu honetan hasi zen absolutismoaren benetako historia eta politikoki Aro Berriaren lehen fasea amaitzen den momentua da.

